

Urola Kostako Koordinadora Feminista

Martxoaren 8aren bueltan, errealitatea aztertu asmoz, arlo ezberdinetako emakumeei eman diegu hitza 20



Loiola Auzoa 20 - 20730 Azpeitia

943 81 08 08 - 943 15 79 01



RENAULT Grand Scenic

Motorea: 1.9 dci 130 cv
Urtea: 2007 Bermea: 2 urte
Kilometroak: ia berria
7 eserlekukoa

Prezioa: 17.500



RENAULT Megane 2 Expression

Motorea: 1.5 dci 105 cv
Urtea: 2007 Bermea: 2 urte
Kilometroak: ia berria

Prezioa: 12.500



RENAULT Megane Sedan Expression

Motorea: 1.5 dci 105 cv
Urtea: 2007 Bermea: 2 urte
Kilometroak: ia berria

Prezioa: 12.500



RENAULT Twingo Dynamique

Motorea: 1.2 dci 75 cv
Urtea: 2008 Bermea: 2 urte

0 kilometro

Prezioa: 10.500



RENAULT Clio 3 Confort Expression

Motorea: 1.2 16v 75 cv
Urtea: 2006 Bermea: 2 urte
5 atekoa

0 kilometro

Prezioa: 11.000



RENAULT Grand Espace Emotion

Motorea: 2.0 dci 150 cv
Urtea: 2008 Bermea: 2 urte

0 kilometro

Prezioa: 27.300



RENAULT Clio 2 Authentique

Motorea: 1.5 dci 70 cv
Urtea: 2006 Bermea: 2 urte
5 atekoa

0 kilometro

Prezioa: 11.000



RENAULT Clio 3 Confort Expression

Motorea: 1.5 dci 85 cv
Urtea: 2006 Bermea: 2 urte
Kilometroak: ia berria

Prezioa: 11.500



OPEL Zafira Elegance

Motorea: 2.0 dti 100 cv
Urtea: 2003 Bermea: urte 1
Kilometroak: 95.000km
7 eserlekukoa

Prezioa: 9.500



RENAULT Kangoo Combi 4x4

Motorea: 1.6 16v 95 cv
Urtea: 2007 Bermea: 2 urte
Kilometroak: ia berria

Prezioa: 13.000



SEAT Ibiza Sportrider

Motorea: 1.9 tdi 100 cv
Urtea: 2005 Bermea: urte 1
Kilometroak: 79.500km
3 atekoa

Prezioa: 8.500

bigarren eskuko 100 autotik gora aukeran

Kontsultatu beste motore eta ekipamentu aukerak. Unitate mugatuak.

uztarria

Argitaratzailea. Uztarria
Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
(Azpeitia, 20730)
Telefonia eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
uztarria@topagunea.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 104.a (2009ko martxoa)
Urtea. XI.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 635 75 76 04 /
maite@uztarria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilerio
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. A. Aldalur
Web orrialdea.
www.uztarria.com

Uztarria herri aldizkariaren
laguntzaileak (erakunde
publikoak)



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Uztarriak
Bai Euskarari



Oharra. Uztarria
Komunikazio
Taldea ez du
bere gain hartzen
herri aldizkariaren
adierazitako
esanen eta
iritzien
erantzukizunik

2009KO MARTXOKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia



Inkesta. Eskolaz
kanpoko ekintzarik
egiten al duzu? **13**

mamia

Juanjo Etxeberria.
Jesuiten Loiolako
Probintzial berria ere
azpeitiarra da. **04**
Klik!. Betharram
ikastexea inauguratu
zuteneko argazkiak. **16**
InfoReg Erregistro
zibiletan euskarazko
inskripzioak erraztuko
omen dituen tresna. **24**

jakiteko

**Iñaki Alberdi 'Iñaki
Txikiye'.** Auto-gidari
ezagunak bere beste
afizioez eta ofizioez
hitzez egiten du. **34**



Ba al dakizu bi neskatok izena eman
dutelarik lunperen esku pilota eskolan,
hamabost bat urte eta gero? **Uztarria**

egin zaitez bazkide Uztarrian



943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere
eskuratuko dituzu.** Uztarria Komunikazio Taldeak liburuak eta
ere ateratzen ditu. Orain arte, hamabi liburu eta CD bat (ondokoa eta
behekoa). Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.150 bazkide
gara dagoeneko Uztarrian;
eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean.
106.400 euroko aurrekontua
du Uztarriak 2009. urterako.



JUANJO ETXEBERRIA

jesuita

“Gure misioa fedea eta justiziarena da”

42 urterekin izendatu zuten, iaz, Loiolako Probintziako jesuiten buru Abaltzisketako azpeitiarra. Bost urte ditu hausnarketa prozesua bideratzeko. 📎 Joxin Iturriotz

U

rtebete darama kargu berrian, beste azpeitiar baten, Juan Migel Arregiren, lekukoa hartuta.

Abaltzisketako azpeitiarra.

Abaltzisketako Azafran baserrian sortu nintzen. Familia osoa Amezketako eta Abaltzisketako da. Aitak Diputazioan lan egiten zuen, eta hiru urterekin Azpeitira etorri ginen, Landetara. Txikitako oroitzapen politak ditut. Gogoratzten naiz hamahiru urterekin esan niola amari zerbait nahi nuela, Afrikara misiolari edo. Aiertza Betharramgo zuzendariarekin hitz egin genuen, eta 8. OHO egiten ari nintzela Patxi Auzmendi agertu zen. Orduan zentro bat zabaldu zuten Loiolan, eta Patxi etorri zen etxera, zentro horretan sar-

tzeko. Loiolan sartu, eta ikasketak Iraugin egin nituen. Han gehienak nafarrak ziren, hementxe jende gutxi, eta pentsatzen zuten neu ere nafarra nintzela. Loiolan oso gustura. Proiektu on bat hasten denean, harremana ere oso ona izaten da. Auzmendi Zamorako kartzelan egondakoa zen, eta filosofia irakasle Iraugin. Bai Patxiarekin bai besteekin, nire galdera moldatzen joan zen, eta hor sortu zen bokazioa.

Garai hartan ‘bitxo arraroa’-ren sentsazioa izango zenuen.

Arraroaren sentsazioa, eta sentsazio arraroa: azpeitiarra izanik, nik zer egiten dut Loiolan? Ama saiatzen zen ni aurkitzen. Olatzen apuntatu zen sukaldaritza ikasta-

DATUAK

|||Jaio. 1966ko urtarrilak 18.

|||Herria. Abaltzisketa. |||Bizitokia. Bilbo. |||Lanbidea.

Jesuita. 2008ko martxoan, Jesusen Lagundiaren Loiolako Probintzial izendatu zuten.




ro batean, ez sukaldean ikasteko, nirekin topo egiteko baizik. Han egoten zen itxaroten, niri galleta batzuk emateko. Nik pentsatzen nuen: zer egiten du amak ni itxaroten? Baina galletak hartu eta aurrera.

Iraugin bukatu, eta kanpora ikastera.

Filosofia ikasten hasi nintzen, bi urte egin nituen Zaragozan (Aragoi, Espainia), baina esan zidaten Zuzenbide Kanonikoa egiteko, eta Filosofia utzi eta Parisera joan nintzen, Teologia egitera.

Zuzenbide Kanonikoa atzerakoien kontua da!

Ni zientzietakoa nintzen. Hasieran harritu egin nintzen, baina pentsatu nuen: ikusten baduzue beharrezkoa dela, bada, konfor-



me. Uste dut inportantea dela helburuari heltzea, eta hori da ari-men salbazioa eta munduko justizia. Eta benetan polita da, eta aberasgarria. Erroman bukatu eta hona etorri nintzen, hasieran Deustura, eta gero azken etapa egin nuen, oniritzia edo *aprobación* deritzona; esperientzia inportanteenetakoa da guretzat, galdera asko sortzen dira, formazio pertsonalean sakontzen duzu, eta abar. Psikologia pixka bat ere ikasi nuen. Guatemalan bost hi-

labete egin nituen ikastaro batean. Oso gogorra izan zen, gerrillarekin-eta... Hondurasen ere egon nintzen, parrokia batean. Hori niretzako eta nire prozesurako ona izan da.

Arlo sozialean lanean arituzara.

Ni prostituzio munduan lan egiten ibili naiz. Parisen Bois de Bologne inguruan ibiltzen ginen. Bilbon Askabide elkartearen boluntario bezala lan egin dut. Helburua beraiei hitz egiteko aukera ematea da. Beraiek objektu sentitzen dira, eta beste pertsona batekin egoteak lagundu egiten die. Nik ez dut esaten apaiza naizenik, baina ukatu ere ez dut egiten. Berhala zabaltzen da, jakina. Orain ezin dut lan hori egin, astirik ez daukadalako.

Salto egiten dute, prostituzioa utzi eta bizimodu arruntera pasatzen dira?

Oso zaila da horrelako zerbait lortzea. Eduki dezatela informazioa, bai juridikoki, bai pertsonalki, bai osasun arloan, eta ez da gutxi.

Unibertsitatean irakasle izan zara.

“Loiola eta xabier toki esanguratsuak dira jesuitentzat. Beti mantenduko ditugu”

Nire bizitzan lan gehiena irakasle bezala egin dut, Deustuan, Zuzenbide Fakultatean, Zuzenbide Kanonikoa eta Zuzenbidearen Filosofia ematen, eta Teologia Fakultatean, Zuzenbide Kanonikoa. Gustatzen zait klaseak ematea, gazteekin egotea... Teologiako fakultatean jende gutxi ginen, eta klaseak zoragarriak ziren. Eztabaidatzeko aprobetxatzen nuen. Gestioan ere, dekanororde izan naiz, baita errektore-orde ere.

Probintzial izendatu zaituzte, baina ez zenuen espero.

Nik banekien hor nengoela, posible zela, Kurian sartuta nengoelako eta prozesua ere jarraitu behar nuelako, baina ez duzu espero. Zeure buruari esaten diozu laguntzaile bezala oso ondo zaudela, klaseak ematen-eta. Deia iristen denean, zalantzak ere sortzen dira: gauza izango al naiz? Konfiantza jartzen duzu: ni aukeratu baldin banaute, izango dut laguntza, Jainkoarena eta Lagundiarena. Probintzial izateak arlo publikoan lan egitea eskatzen du. Klaseak utzi behar dituzu, libre egon behar zara. Politikoeekin, enpresarekin, mundu horretan mugitzea kostatu egiten da, gusturago sentitzen naiz jende xumeagoarekin, baina saiatzen naiz hor ere ikasten, eta egoten.

Erabaki ahalmen handiagoa daukazu orain.

Bai, noski. Nik hitz egiten dudanean ez naiz Juanjo Etxeberria bakarrik, baita jesuiten probintziala ere, Hego Euskal Herrian, Loiola probintzian. Eta garrantzitsua da adieraztea esperantzazko hitzak, ikustea nondik nora goazen, gizartea aurrera doala, nahiz eta batzutan nahiko beltz ikusten dugun errealitatea. Gure egitasmoan sartzen da esperantza zabaltzea mundu honetan, gizarte honetan. Are gehiago ikusiz ditugun gatazkak, egungo krisi ekonomiko gogorra, eta abar. Baita Euskal Herrian dugun bortizkeriarekin ere, bakea eta adiskidetasunaren alde. Nik uste lan handia dugula. Orain ari gara probintzia mailan ▶

Euskarazko ondarea

||| Jesusen Lagundian euskalgintzan eta euskal kulturari nabarmendu diren hainbat gizon egon dira. Horietako bi, Gotzon Garate eta Antonio Zabala, duela gutxi hil ziren. Zabalak, esate baterako, bertso paperez betetako bi gela oso utzi omen zituen. Ondare hori, ordea, ez da jesuiten esku geratu. Horrela azaltzen du Juanjo Etxeberriak:

“Gipuzkoako Diputazioaren esku dago hori guztia. Bera [Zabala] hil aurretik hitzartu zen Aldundiarekin. Hitarmana sinatuta dago, eta uste dut material guztia jasota egongo dela. Uste dut inportantea zela gure aldetik euskal herentzia hori egoki bideratzea. Juan Migel Arregik bideratu zuen akordioa. Gure aldetik ez dugu oztoporik jarri; alderantziz baizik, bultzatu. Uste dut altxor hori esku egokietan egon beharrekoa dela. Ahal den moduan, baina guk ere euskal kultura bultzatu beharra dugu”.



1. Bittori ama, Joxe aita eta Kontxi, Arantxa eta Manolo anai-arrebekin. Zutik dagoen mutikoa da Juanjo.

2. Iraurgi Ikastetxeko UBiko ikaskideekin, 1983-1984 ikasturteko argazkian. Etxeberria borobilaren barruan agertzen dena da.

3. Azpeitiko Soreasuko San Sebastian parrokian eman zuen meza berria Juanjo Etxeberriak, 1985eko uztailaren 9an. Kepa Susperregi erretorea eta Txema Vicente jesulagunaren artean ageri da.



► ikusten zein den gure proiektua. Gatazkaren gaia indartsu ateratzen da. Zer egin dezakegu, eta Elizak zer egin dezake, bakearen alde? Ez da erraza.

Jesusen Lagundiaren aberastasuna ikusirik, ez al da harriagarria egiten jesuiten pobreziazko botoa?

Guk dugun misioa da, alde bate-tik, fedearen zerbitzua, eta beste-tik, justiziarena. Biak lotuta, ezin baitira biak aparte jarri. Fedearen zerbitzuak lan bat eskatzen du heziketa munduan. Nik unibertsitatean beti egiten dudana galdera fedearena eta justiziarena da. Ez da azaltzen hain garbi unibertsitateak hori egiten duen lana: Giza Eskubideen Institutua, Menpekotasunaren Institutua... Eta bestalde uste dut Euskal Herrian justiziaren alde egiten ari den lana in-

portantea dela. Loiola Etxearen proiektua, Donostian; hori bizi dira jesuita batzuk eta laiko batzuk, eta kartzelako jendea. Edo Bilbon Ellakuria Egoitza, etorkinekin. Etorkinekin lan zoragarria ari dira egiten Alboan GKEan edo gure elkarteetan. Durangon gauza polita egin dute. Ikastetxeko elkarte-an lehen 22-23 jesuita bizi ziren, eta orain 12-13. Eta planteamendua egin zuten: 'Guk libre ditugu gure artean etorkinak?'. Egin dute, eta bizi dira lau etorkin berriekin. Aldaketa polita jesuitentzako ere. Nahiz eta jesuita eda-detuak izan, 'nik oraindik lan egin dezaket' esateko. Nik uste arriskuak dauden tokietan egotea eskatzen digutela. Paulo VI.ak, baita orain Benedikto XVI.ak ere, eskatzen digute mugetan egotea, eta

hor egoteak bere arriskuak badi-tu. Eta esaten digutenean, benga, giza mugetara, erlijio mugetara, batzutan ez da erraza. Horregatik uste dut Jesusen Lagundia batzutan kritikatu izan dela baita horregatik ere, muga horietan egoteagatik, eta eskatu zaio El Salvadorren, Guatemalan, Indian egotea, harremana beste erlijioekin, nola egin hausnarketa teologikoa beste erlijioekin, beste kulturekin. Nik uste horrek laguntza ematen digula, nondik eta nola egin dezakegun urrun egon diren beste kulturekin. Adi egon behar dugu. Batzutan asmatuko dugu, eta besteetan ez. Autokritika ere egin behar dugu.

Eta aurrera begira?

Probintzial izatearena sei urteko lana da eta ez da errepikatzen. Orain hausnarketa prozesuan

gaude estatu mailan. Hausnarketa egin behar dugu, Loiola probintzian eta estatu mailan, zeintzuk diren gure erronka nagusiak, eta selekzio bat egin, zer diren gauza inportanteenak, bai guretzako jesuita bezala, bai elizarentzako. Euskal Herrian dugun erronka handia bakea eta erre-kontziliazioaren aldekoa da. Beste fedea, espiritualitatea, mundu hori. Zortzi urteko prozesua da. Nik uste nire lana bost urte haue-tan, probintzial moduan, gure jesuite misioan kokatzen laguntzea dela, askotan entzutea izango dela, eta erreflexio estrategikoa egiten bultzatzea hainbat erakun-deri. Talde polita dago kurian lan hori egiteko. Loiola eta Xabier beti mantenduko ditugu. Estrategikoki jesuitentzako toki oso sinboliko eta esanguratsuak dira. ✨

Egia?

Harroko jarritakoan aipatu izan dut, gazte mailan Lagun Onak herriko futbol taldean ari nintzela, Real Madril etorri zela Garmendipera ni jokatzeko ikustera.

Entrenatzaileak eman zidan gertatuko zeneren berri lokatzetara salto egin baino minutu batzuk lehenago: "Hi Aldalur, Real Madril-eko begirale bat etorri duk hi ikustera eta saiatu hadi gogotik". *Joder, beste batzuetan saiatuko ez banintz bezala!*, pentsatu nuen. Gaztea nintzen eta, beraz, tonto usain gutxi-koa (oraingoa beste kontu bat da) eta bane- kien nire taldean ia denak zirela ni baino de- zente hobeak (badira hauek artean Alavesen, Eibarren eta Errealean urtetan oso maila onean aritutakoak).

Hura pasatu zen eta, jakina, ez zen ezer berezirik pasatu. Laster antzemango zidan korrikarako edo arbitroarekin haserretzeko egokiagoa nintzela futboleko aritzeko baino! Baina ni gustura nengoen Real Madril- en kontu harekin. Urteak pasa ziren eta egun ba- tean aitarekin berriketan ari nintzela, argitu zen gertatu zena. Garmendipera etorri zen begiraleak —Elgoibarko Joxe Mari Arakistain atezain ospetsua izandakoak— bi lan zituen: asteburuetan herrialdeko gaztetxoak futbole- an nola aritzen ziren ikustea, eta astean zehar pintura saltzea, enpresetan batik bat. Nire aita, berriz, tailerreko enkargatua. Beraz ez da zaila pentsatzea Arakistainek jakin zuene- an enkargatuaren semea futboleko aritzen zela, eta Azpeitia Elgoibartik hain urruti ez da- goenez, pintura kilo mordo bat saltzeko... Ulertzen?

Eta handik aurrera, harroko jartzen naize- nean, gertatutakoaren erdia kontatzen dut eta aurrean dudanak kopeta zimurtzen badu, beste erdiarekin argitzen diot gertatutako- ren arrazoia. Gaur arte, jakina. Beraz, gakoa erdia edo osoa da.

Egiaren erdia, egia al da? Egia al da, *El País* egunkariak otsailaren 13an zioen beza- la, Azpeitia erabat aldatu dela azken hilabete-



|||||||koldo aldalur|||||||

|||Bakean bizitzea ez da biztanleen artean istilurik ez izatea, istilurik ez izateko oinarriak jartzea baizik

etan? Bakea dela nagusi gure artean? Hobe, bai, hala balitz!

Bakearen esanahia

'Bakea' hitzak duen esanahia askoz zabala- goa delakoan nago. Bakean bizitzea ez da biztanleen artean istilurik ez izatea, istilurik ez izateko oinarriak jartzea baizik, bakearen alde lana egitea, alegia. Beraz, ez da egia osoa herrian bakean gaudenik, seguruenik, denok hala nahiko bagenu ere. Nahiago nuke, nire iloba Kaiaren muxurik ederrena baino, oker egongo banintz; baina beldur naiz, herrian dugun giroarekin, hurrengo hilabeteetan ez dela erraza izango oinarriak jartzea istilurik ez izateko.

Futbol begiralearen kasuan komeni den erdia soilik aipatzea, agintean nor dagoen berdin dela eta azkenean hemen inoiz ez dela ezer konpontzen esatea bezala da. Egiaren beste erdia da aitortzea, pinturazaleak nire ai- tari pinturak saltzea beste helbururik ez zuela, eta gutako ia inor ez garela saiatzen herriko giroa hobetzen.

Ez dago erabaki handiak har- tzen diren tokietan ahotsa al- txatu beharrik. Askotan al- boan dugunari gaia ai- patzeak gehiago balio du. *Si vis pacem, saia zai- tez.*✱



Gure hauteskundeak

Artikulu hau argitaratzen denerako hauteskunde kanpaina iragana izango da ziurrenik eta emaitzak mahai gainean izango ditugu. Hauteskunde aurreko mapak martxoaren 1aren ondorengoarekin zerikusirik ez izatea gerta liteke, baina beno, ezertan ez dudala asmatu asमितzeko prest nago. Nire lagun batek dioen bezala, zer zaila den predikzioak egitea, eta are zailagoa etorkizunekoak badira.

Hauteskundeak beti dira hauteskunde, baina herritarrengan udaletakoek xarma eta gertutasun handiagoa izaten dute. Hautagaiak ezagutzen ditugu, onerako eta txarrerako, zuzenean zigor ditzakegu edo saritu eta, horretaz gain, Udaleko ordezkarien erabaki eta politikek gugar eragin handiagoa izan dezaketela uste da, autonomikoek baino gehiago behintzat.

Euskal Autonomia Erkidegoan buruz buruko bat nagusi bada ere, Ibarretxe eta Lopezen artekoa, Azpeitian hauteskundeak beste klabe batean irakurri ahal direla uste dut. Hemen sokatira EAJ eta Ezker Abertzalearen artekoa da. Lehenengo aldiz, Gasteizko Legebiltzarrean PP eta PSEk gehiengoa izan dezaketenen mehatxuak ez dirudi gure herrian islarik izango duenik, ala bai? Gurean *españolistak* EAJkoak dira, *euskolabel* mugatua inondik inora ere.

Hausnarketatxo bat

Azken urteetako boto eboluzioa ikusirik, euskaldunak oso fidelak garela esan daiteke, *españolismo/autonomismo versus* euskal nazionalismo ardatza kontuan hartuta behintzat, eta ematen diren mugimenduak blokeen barruan emanen dira, ez euren artean. Azpeitiko emaitza posibleak ematera ez naiz ausartuko, baina azken bi hilabeteetan gertatu direnek emaitza hauetan izan dezaketenen eraginaren inguruan hausnarketatxo bat luzatu nahiko nuke. Inaxioren erailketak, mozio zentsurak eta hemendik eratorritako Udal Go-



|||||||eider alkorta|||||||

|||Hauteskundeak beti dira hauteskunde, baina herritarrengan udaletakoek xarma handiagoa dute

bernu berriak mugimenduak sortu ditu herrian, baina elektoralki izan dezakeen eragina momentuko zalaparta baino ahulagoa izango dela uste dut. Hauteskundearen lejitimazioaz luze mintza gaitezke, baina ordezkariak herritarrek aukeratzen dituztenean lejitimazio apur bat bederen ematen dietela esan dezakegu. Eta hemen dago Udal berriaren gakoe-tako bat, udal hauteskundeetan boto gehien EAJk jasota ere, jatorrizkoa bestelakoa zela. Erailketaren ondoren boto traspaso batzuk antzeman ahal baziren, traspaso hau mozioak mugatu duelakoan nago. Askok nirekin bat etorriko ez badira ere, gobernu berriko ordezkari gehienek hauteskunde lejitimazioa nahiago zutenaren eta dutenaren ustea dut. Ez dakit hauteskunde autonomikoetako emaitzak horretarako baliogarri izango diren.

Emaitzekin erakutsiko dute azpeitiarrek buruz buruko autonomikoaren partidari jokatzea erabaki duten, edota gure buruz buruko propioan. Hautesleek udaletako eta erkidegoko hauteskundeak ez dituzte berdin bizi-tzen eta, batzuen zein besteen ondorioak eta ingurumaria ezberdinak izan arren, agian bizi dugun krisiaren aurrean hauteskunde autonomikoak herriko ordezkariak faktura pasatzeko tresna bezala erabiliko dituzte azpeitiarrek. Neu izango naiz lehen harritua.✘





zeu zara giltza, etxeko
atea egunero irekitzen
diguzulako. Bost urte
hauetan HITZA herrikoia
bezain beharrezkoa
bihurtu da zuri esker.
Egunero irakurtzen
gaituzu eta egunero
eskertzen dizugu.
Komunikazio proiektu
honetan albiste iturri

amaigabea ere bazaitugu,
eta hori ezinbestekoa da
gure informazioaren
errotak martxan jarrai
dezan. Bost zentzuak
piztuta ditugu lanean
jarraitzeko. Eman
bostekoa, hartu hitza.

zeu zara **giltza**, hartu **hitza**

Ospatu **V. URTEURRENA** gurekin

Martxoak 14, larunbata

HITZAREN ALDEKO BERTSO SAIOA

Azpeitia



Izarraitz pilotalekuan, 22:00etan

Andoni Egaña,
Sebastian Lizaso,
Jon Maia,
Uxue Alberdi,
Joan Jose Eizmendi 'Loidisaletxe'
Jokin Uranga

laguntzaileak:



Hitza etxean jaso nahi baduzu, deitu HITZAren bulegora 943 89 00 17 edo bezero arretara 902 82 02 01

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

ZUKU NATURALA BADAGO

**GORA.** Eskaintzak euskaraz.

Eskaintzak euskaraz jartzea garrantzitsua da euskararen normalizaziorako. Zukuak bakarrik ez, euskara ere natural-naturala du tabernari honek. **Uztarria**

**BEHERA.** Publizitate bonbardaketak.

Gure etxeko buzoietan egunero jasotzen ditugu horrelako orriak. Publizitate hau euskarara itzultzea ez da ba holako lan handia, ezta? Gogoia behar. **Uztarria**

Fundas a medida para Sofás, Rinconeras, Orejeros, Reclinables...



Uztarria.com-en

BLOGAK.

Ramon Etxezarreta. "Urte an-dana luzean gobernuan egon izana arrazoi aski da askorentzat agintari aldaketa baten beharra ikusi ahal izateko. Ikusi eta exijitzeko. Betirakoak ziruditen CIU

eta PP makurtu eta lekualdatu ziren Katalunian eta Galizian, beti ere independentistekin lankidetzatza eta koalizioan. Orain Andaluziako PSOE eta gure PNV gertzen dira, Adanen egunean izendatu eta Josafaterako zelairaino-

ko agindua balute bezala. Ona al den galdetzen diot askotan neure buruari alderdi batek hain iraupen luzeko agintealdiak izatea. Ezetz seguruen erantzuten diot. Hainbeste urte boterean dauden alderdiak, berriro galdetzen diot, al-



Fernando Morillo.

ESANA DAGO

"Askotan, fantasiak erakusten dit nola ulertu eta nola hartu errealitatea"

FERNANDO MORILLO
idazlea

"Argia Saria guretzat babeseta bultzada izan da nolabait"

IBAN BENGOTXEA
Erlo Telebistako langilea

"Ez dugu asmatu komunikazioarekin; gizartea aldatu egin da eta eliza ez"

JOXE ARREGI
frantziskotarra

datzera derrigortuta al gaude politikagintza egokiago baten alde?"...

INKESTA.

Berreskuratuko al zenuke jai karnabalerako puru piztea?

Bai. %54,55.

Ez. %45,45.

Orain dagoen galdera. Ba al duzu konfindantzarik politikoen-gan?

Jaialdi osoa pilotan



||||| **Iñaki elortza** |||||

Eskuzko pilotari profesionalen batek hogeita lau orduren buruan bi partida jokatzen baditu, beti izango du gertu edo urrutitik zerbait esango dionik: "ezin dik bigarren partidara sasoiari iritsi, ez zian ondo deskantsatuko, eskuetatik nola izango ote duk...".

Egia da ere, batzutan eta halabeharrez, pilotari batek jaialdi berean bi partidatan parte hartzen duela, norbaitek min hartu duelako edota, oraintxe gutxi Covaledan bezala, elurragatik iritsi ezin zuenaren tokia beste batek hartu behar izateagatik. Ez da denbora asko ere afizionatu mailako Zabaletak hogeita lau

orduren buruan hiru final jokatu eta hiruak irabazi zituela.

Gaur, ordean, kontutatu nahi duguna benetan bitxia eta berezia da: pilotari profesional batek jaialdi berean hiru partida jokatu!!!

Mateo Murua (Mateo Muruamendiaren, Bergara 1907-07-21) pilotaria zen, eta seguru azpeitiar askok ezagutu dutela, pilotari garaian eta, batez ere, oraindik batek baino gehiagok gogoratuko du Bergarako frontoian intendentea izan zela urte askotan.

Mateo aurrena zesta-puntan saiatu zen, baina 17 urterekin Eibarren debutatu zuen.

33 urte zituela Bergarako pilotalekuan hiru partidatan izan zen protagonista. Lehen partidatan 'hirukotea' osatu zuen Irureta II.a (zes-toarra) eta Altunarekin (getariarra), eta 11-22 galdu zuten Rubio eta Mondragonesen aurka. Ondoren Gorostiagaren aurka buruzburu jokatu eta 22-14 irabazi zion. Azkenik berriro Gorostiaga izan zuen etsai, baina oraingoan eskuinez bakarrik, eta berriro irabazi egin zion Muruak (22-12). Egindako lanaren ordainetan 25 pezetako gainsaria eman omen zion enpresak (ez ahaztu 1940an gertatu zela). ■

||| **IKUSTEKO!** |||||



▲ **BASERRI BAT GUTXIAGO.**

Urrestillako Guardi baserria da argazkikoa, otsail amaiera aldera botatzen hasi ziren egunean. XVII. mende amaierakoak dira baserri honen gaineko idatzizko lehen aipamenak. Azpeititik Urrestillarako bidea aurrez aurre ikusten da Guardi dagoen tontortxotik eta, istorio zaharrek diotenez, hortik zetorkion izena. Etxe berria eraikiko dute bere tokian. 🏡👉 **Mailo Oiarzabal** ■

OTSAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



alex silva



Ketik ihesi

LURRUNEZKO TRENA. Azpeitiko Euskal Burdinbidearen Museoak pisu handia du. Baina etenaldi ekonomikoa denera iristen da eta honek ere izan du bere beherakada. 2009an bisitari gutxiago izan baditu ere, etorriko dira urte hobeak. Madrilgo Fitur azokan egon ziren gure herriko turismoa sustatzen. Ea eragina duen eta, laster, Lasao bidean aurrera ikusten dugun trenaren jendez gainezka.

Omenaldia

KALDEREROAK. 16 urtez egon dira kaldereroen etorrera antolatzen Ardozaleak Elkartekoak. Aurten Udalak antolatu badu ere, ezin ahaztu horrelako lana eta nor hobe omentzeko, berauek baino? Ondo egindako lan guztia gogora ekarri eta eskertzeko garaia zen.



Jaiez jai

INAUTERIAK. Azpeitian ezin gara kexatu. Beti gaude jai giroan murgilduta. Oraingoan karnabalak izan ditugu gure artean. Kriak zorrotasuna pizten omen du, eta horren erakusgarri izan zen astelehen gaua. Denetarik egon zen: udaltzain nudistak, andaluzak eta Amy Wi-

nehouse ugari. Ama birjina ere izan zen bisitari. Ez zuten lan erraza izango udaletxeko epaileek irabazleak aukeratzen. Hala ere, urtero bezala ez dute gaizki egin eta landutako mozorroak izan ziren irabazle. Pena da kalera irten eta ondo egiten duten guztiek ezin irabazi izatea. ■

INKESTA

eskoLaz kanpoko ekintzarik egiten al duzu?

Arantxa Aldalur

AIORA URBIETA

13 urte



"Bai, ingeleseko partikularretara joaten naiz azkeneko sei

urteetan. Lehen balleta ere egin nuen, lau urtez, baina ja ez. Gustura egiten ditut eskolaz kanpoko ekintzak".

ONEKA IBARGUREN

13 urte



"Ingelesera, pianora eta solfeora joaten naiz eta futbolean

ere ibiltzen naiz. Gehiena futbola gustatzen zait. Lehen abesbatza eta saskibaloian ere ibiltzen nintzen".

IRATI ETXEBERRIA

14 urte



"Ez dut eskolaz kanpoko ekintzarik egiten. Nahikoa izaten

dut nik eskolarekin. Lehen Musika Eskolan ibili nintzen eta orain panderoa jotzen ikastea gustatuko litzaidake".

EIDER VALVERDE

13 urte



"Ingelesera eta futbolera joaten naiz. Lehen balleta eta

saskibaloia egiten nituen. Gehiena futbola gustatzen zait eta sabel dantza ikastea gustatuko litzaidake, baina herrian ez dago horrelako eskaintzarik".

Konposta, bigarren fasea

Konpost hondakinak biltzeko bigarren fasea abian jarria da jadanik eta otsailaren 5etik 7ra Sindikatu Zaharrean aurkeztuak izan dira fase honetako berrikuntzak. Lehen faseko landare hondakin gordinari orain animalia jatorrikoak ere gehituko zaizkio: haragi, arrain, itsaski edo mariskoak euren hezur eta guzti, gazta eta ileak ere bai, sukaldatuak edo gordinak barne. Guzti honen helburua 2016 urterako 60.000 tona hondakin organiko konpost bihurtzea, eta orain arteko biltzaile eta hasiko diren berriei esker, urtean 200.000 kilo zabor gutxiago sortuko dugu.

Uztarriaren aurreko zenbakian Mirari Garaiak zioen ekintza honen bitartez etxeko ohiko zaborrontzia ia hutsik geratzen dela (eta bigarren fasearekin are eta hutsago), baina tamalez erraustegi erraldiaren egitasmoak bere horretan jarraituko du, biztanleek partaidetza handiagoa hartzen ez badute. Egunero ikusten ditut gure inguruko zaborrontzi gri-



iginio oiarzabal

sak gainezka, eta okerre, era guztietako hondakinez beteta, plastikoak eta abar. Ekologista direla dioten askori esan beharko zaie izenak berarekin daramala izanaren konpromisoa.

Pozgarria da Usurbilen hondakinak etxetik etxetik biltzeko daramaten proiektua, martxoan abiatzekoa. 5.900 biztanleko herrian 1.200 lagun hurbildu dira bileretara, eta gai diren 400 familietatik 340 dira baietza emanak.

Beste herrietan antzeko proportzioarekin ibiliz gero, orduan bai hitz egin genezakeela era apalagoa erraustegi batetik (bitartean asko hitz egin bai, baina ahalegin gutxi askoren aldetik).

Francoren diktadurapeko Bartzelonan, kartel batean irakur zitekeen: "*Mantenga limpia España*" (Espainia garbi mantendu ezazu). Eta azpian, norbaitek eskuz idatzirik: "*con los andaluces imposible*" (andaluziarrekin ezinezkoa).

Eta euskal herritarrekin?...*

galdetzen hasita, aurten elizaz ezkonduko diren bikote guztiak joango al dira loiolako topaketetara? Uztarria

Gotzain berriaren zain



kepa susperregi

Duela 9 urte inguru, urte sasoi honetan, gure Elizbarrutiko gotzainaren aldaketa bizi izan genuen. Jose Maria Setien gotzainak kargua uzten zuela eta Joan Maria Uriartek ordezkatzeko zuela zioen berriak ustekabean harrapatu gintuen. Sorpresa bat izan zen guretzat.

Urte pare bat lehenago, zilarrezko ezteiak betetzerakoan, bere gotzain bizitzan egindako ahaleginaren ardatz nagusiak aipatu zituen. Egun hauetan, ordenadorean gordeta aurkitu ditut eta, irakurtzen hasita, egokiak iruditu zaizkit oroitzeko, gogoan hartzeko. Hauek dira, labur bildurik:

Bizitza tokatzen zaigun garaiko gizarte giroan, Elizak urratu behar dituen bideak antzematen saiatu, Jesusen ebanjelioa modurik leialenean eta zintzoenean aurkeztuz eta eskainiz.

Balore etikoak behar beharrezkoak dira giza bizitza egituratzeko. Hori adierazten ahalegindu, giza eskubideak gozatu izanez eta aldarrikatuz.

Gure herriaren gizarte bizitzaz, egoera ekonomikoaz, politikoaz, arduraturik bizi... erakunde eta gizarte antolamendu ezberdinen erantzukizuna errespetatzen saiatu.

Bake-erakunde minberaturik bizi den gure herriaren zerbitzuan bizi, baketzearen alde lan eginez.

Gure Elizak gizarteko behartsu eta baztertuak gozatu izan ditzen saiatu, bideak zabaltzeko.

Gure herritik kanpora, Hirugarren Munduan, behar gorrian bizi direnekiko elkartzasun bideak urratu.

Euskal Herriko gainontzeko elizbarrutiek elkar-lana bultzatu.

Garai hartan ez bezala, Gotzain berri baten izendapenaren zain aurkitzen gara. Ez dakigu noiz izango dugun horren berri, baina albisteak ez gaitu ustekabe harrapatuko. Datorrena datorrela, beste erronka batzuekin batera, aipatutako horiek ere gozatu izan beharko ditu. Hala iruditzen zait.*



andoni salegi



Tregua

Agia aldizkarian irakurri dut euskal literatura eta gatazkaren arteko harremanari buruzko artikulua. Horretan ere, interesen araberak, batzuen ustez gutxiegi idatzi da, ETAREN ekintzen biktimak ez direlako aipatzen, eta beste batzuen iritzi ez errealitatearen neurri dago bortizkeria landuta euskal literaturan. Gehienak ados dauden kontua da aldaketa eman dela. Lehen ez bezala, orain ETAREN biktimen sufrimendua ageriagoa da. Giza artearen ispilu moduan uler daiteke hori.

Baina arreata sortu didana aipatzen den arrazoietakoa bat da. Tregua ondorenean bizi

gara. Edo bi tregua ondorenean, hobeto esateko. Eta balorazioa ezin da berdina izan treguaren aurretik eta bi treguen ondoren. Tregua garaian itxaropenez lana erruz egindako jende ugari ezagutu dut. Askok frustrazioa eta etsipena gainditu gabe daukate oraindik.

Tregua biak 'tregua-tranpa' izan ziren bai Estatuaren aldetik, bai ETAREN aldetik. Ez Estatuak ez ETAK ez zuten treguarik errespetatu. Jakin nahi duenak baditu datuak hori konfirmatzeko. Ondorioz, literaturan bezala, badaude arrazoiak balorazioa berdina ez izateko treguaren aurretik eta treguen ondoren.

Nik aitortu beharra daukat garai batetik oso bestela ikusten dudala egoera. ETAK ez du su-etenik egin, nahiz eta egingo zuela hitz eman. Eta Espainiako Gobernuak bere errepresio bortitzenarekin jarraitzen du etengabe. Elkarri arrazoiak emanez bezala.

Eta treguaren ondorengo irtenbidean apustu egin genuenok etsipenez eta frustratuta jarraitzen dugu. Ezer ez dela aldatu diotenek, egoera antzeko edo berdin ikusten dutenek, ez da izango ez dutelako treguan sinestuz? Edo, agian, sekula ez dutelako treguarik egin?*



joxin iturriotz

GAIBAT, BI IKUSPUNTU

garraio publikoa. Urrestillarako autobus linea berria jarri dute, baina nahikoa al da udalerrri barruko zerbitzua? Erabiltzen al da autobusa?

Ohiturak aldatu

Autobus zerbitzuena eskuartearen darabilkigun gaia da. Udaletik azken urteetan hainbat saiakera eta ekimen egin dira, garraio publikoaren eskaintza hobetu eta herritarrek zerbitzuak erabil ditzaten bultzatze aldera, baina ez da konponbide errazeko kontua. Alde batetik, eskola garraioari dagozkionak dauzkagu. Zerbitzua ematen duten bi enpresen kontzesioak aurtur bukatzen dira eta oraintxe gaitzeta kontzesioak berritzeko baldintzak eta negoziatzeko bileretan. Bestetik, zerbitzu orokorra dago. Zenbait enpresek batera jarrita martxan daude zerbitzu batzuk, Urrestillarakoa, adibidez; baina horiek ere birplanteatu nahi ditugu. eta inguruko udalekin ere akordioak landu nahi dira. Udal horiekin ez ezik, Foru Aldundiarekin ere harremanetan gaude, ahalik eta konponbide onenak lortu asmoz.

Udalak, erakunde publikoak den aldetik, beti saiatu behar du herritarrek ahalik eta zerbitzu onena izan dezaten, baita garraio publikoa bultzatzen ere. Baina, era berean, nik uste dut herritarrek kontzientziaztea ere oso garrantzitsua dela. Kontzientziaztea eta, batik bat, garraio publikoa erabiltzen ohitzea. Landetako industriagunera jarri zen zerbitzua hor dago, badira ja urte batzuk martxan jarri zela, baina oso jende gutxi erabiltzen du. Zerbitzuak eman egin behar dira, baina jendeak erantzun ere egin behar du.

III Zerbitzuak eman egin behar dira, baina jendeak erantzun ere egin behar du

Aukera gutxi

Urrestillan bizi bazara, kotxerik gabe moldatzea ia ezinezkoa da. Eskola umeek bai, badaukate beraien beharretara egokitutako zerbitzua, ordutegi aldetik eta. Baina langileok, orain dauden zerbitzuak kontuan hartuta, planteatu ere ezin dugu egin autobusa erabiltzea, oso mugatuak direlako. Badakit kotxearekin ohitzen bazara erosotasun hori uko egitea zaila izaten dela ere, zeure kotxearekin nahi duzunean nahi duzun tokira mugitzeko joera aldatzea zaila dela. Baina, baten batek ohitura aldatzea serio planteatu eta garraio publikoaren aldeko apustua egin nahi balu ere, Urrestillan bizita, ezingo luke.

Urteetan, eskoletarako autobusez gain, astearteetan azokarako jartzen den zerbitzua besterik ez da egon. Eskola garraioa lehen ez zen hain mugatua, gainerako herritarrentzat. Umeen autobusak aprobetxatzen zituzten batzuk, Azpeitira joan-etorriak egiteko; baina orain ezin da hori egin. Beizamaraino dijoan autobus linea jarri zuten gero, baina ordutegi aldetik eta oso mugatua dela esango nuke, jende gutxi aprobetxatu dezake. Eta gauza bera gertatzen da orain Biele eta Azcua lantegietarako bidaiak aprobetxatuz jarri dutenarekin. Azpeititik lantegi horietara etorri behar dutenentzat ondo egongo da, baina Urrestillatik Azpeitira lanera joan behar dutenentzat ez dira hain egokiak, ezta gutxiagorik ere. Kotxea behar dugu, derrigor, lanera joateko.*

III Langileok planteatu ere ezin dugu egin autobusa erabiltzea


▼ PERDILLEGI.

Betharramdarren jolaslekua, harri txintxorrez josita. Ikasle guzti hauentzat bihurrikeriak egiteko leku aproposa. Atzean, Perdillegi baserria ageri da.



Garai haiek...

1965. urtean inauguratu zuten Betharramdarren ikastetxea. Oroitzapenen kaxan gordeta egon diren orduko argazkiak, hemen ikusgai 📎 Arantxa Aldalur



▲ DESPISTATUTA.

Argazki ederra da benetan gaztetxo hauena, despistatu samar ibili arren zerura begira! Irrifartsu ageri da kameraren aurrean ikasle koadrila hau.



► FUTBOL TALDEAK.

Argazkiok Betharramdarren armairuetan egon dira gordeta urte guzti hauetan, Agustin Arenas argazkilariak berreskuratu eta txukundu dituen arte. Argazkia ateratzeko prest ageri diren koadrila hauek futbol talde ezberdinak osatzean eginak omen dira. Apaiza ere bertan zen. ►



▲ ▼ MUTILAK BAKARRIK.

1959.an jaiotakoak ageri dira goiko argazkian, irakasle lanetan aritzen zen apaizarekin batera. Betharramdarren ikastetxean garai hartan, eta urte luzeetan zehar, ez zenikasle neskarik ibiltzen. Mutilei bakarrik zuzendutako hezkuntza zen fraideena, garaiko mojena neskei zuzendutakoa zen bezalaxe. Behean, beste ikasle talde bat, zaharxeagoak.



▲ JOLASLEKUA.

Ikastetxeko jolaslekua. 1965ean ez zegoen frontoi kanixa eta graffittirik.





▲▼ GARAIAK GARAIAKOA.

Urteak aurrera, gauza asko aldatu direla jakina da. Janzkerak, ingurunea, hezkuntza ereduak... baita ile orrazkerak ere! Garaian garaikoa. Horregatik dute xarma berezia argazki hauek. Ezagutu ez genituen edo ahaztuta genituen gauza asko gogora ekartzen dituztelako. ■



Emakumeen begietatik

Martxoaren 8an, munduko emakume guztien eguna ospatzen da. Baina ba al dakigu benetan zein den emakumearen egoera Azpeitian? 📝👁️ Arantxa Aldalur

Martxoaren 8a ospakizun eta errebindikazio eguna izaten da. Emakumeek azken urteetan generoen arteko berdintasuna bermatzeko aurrerapauso eta aldaketa handiak eman dituztela ezin da ukatu, baina oraindik egin beharreko bidea luzea dela dirudi. Izan ere, feminismoarena urte gutxi daramatzan borroka da. Gizarte mugimendu bezala lehen aipamenak XX. mendean hasi ziren.

Baina jada XXI. mendean sartuta, kontzientziatuta al gaude generoak gizartean sortzen dituen ezberdintasunez? Eguneroko bizimoduan emakumeek antzematen al dituzte emakume izaerak sortutako arazoak? Hain barneratuta ditugun rol horiek puskatzeko prestatuta al gaude herritarrek? Emakumei dagokionez, zein da Azpeitiko benetako errealitatea?

Azken galdera honi erantzuna emateko asmoz, herriko gune ezberdinetara jo dugu. Hezkuntza arloa, osasun zerbitzuak, Bilgune Feminista eta Udaleko Parekidetasun Sailarekin hitz egin dugu. Lau emakume eta lau ikuspuntu, gai bakar baten aurrean.

1978.
urtean
onartu zen
antisorgailuen
erabilpena
hego Euskal
herrian

AMAIA ARRUTI

||| Herria. Donostia. ||| Lanbidea. Medikua.

“Emakumeen egoera konplikatuagoa da osasun arloan gizonekoena baino. Nahiko zerbitzu ez da inoiz ematen baina gu saiatzen gara medikuntza psikosozial baten bitartez gaixoarengana hurbildu eta ahal den neurrian zerbitzu egokiak eskaintzen. Kontsultara etortzen diren emakumeen artean adin

desberdinak bereizten baditugu, bakoitzak zerbitzu eta atentzio desberdinak eskatzen ditu. Horrela, gazteen artean gehienbat gaixotasun pasakorrek tratatzen ditugu. Adinean aurrera eta lan eta familiako kargak geure gain hartzen joaten garen heinean, neke, estres eta antsietate kasuak ugartzen joaten dira.

Azken urteetan, ez dakit aldaketa handirik eman den zerbitzuen hobekuntzan. Gu gure aldetik saiatzen gara emagin, ginekologia eta antisorgailuen inguruan ahalik eta informazio gehien eman eta gaixoak behar dituen zerbitzuen eskaintza egoki bat izan dezan.

Tratu txarren kasuan, berriz, osasun zentroek ez dute plan berezirik. Medikuek geure kontsultatik lagundu, aholkatu, eman beharreko pausuak zein diren gogorazi eta abar egiten saiatzen gara. Gai oso delikatuak da eta ez da hain erraza tratatu txarrak jaso dituen pertsona bati begiak ireki araztea. Denbora eta kontsulta asko eskatzen dituzten kasuak dira.

Gizonezkoekin konparatuz gero, ikusten den beste bereizketa bat zera da: etxean

AMAIA ARRUTI
medikua

“Nahiko eskeintza inoiz ez da ematen, baina gu saiatzen gara medikuntza psikosozial baten bitartez gaixoari laguntzen”



EDURNE ARANBARRI
parekidetasun saila

“Gure asmoa
ikuspegi feminista
gizarteko arlo
guztietan txertatzea
da, gizarte parekide
baten urratsak
emateko”



dauden gaixo edo atentzio berezia behar dutenen zaintzaile emakumeak izaten direla gehienetan. Gu gaixo horiek bisitatzena etxetara joaten garenean, ez gara gaixoaz berataz bakarrik ardurutzen, zaintzaileari era beti asistentzia bat ematen diogu. Nola dagoen galdetu, antolatzen lagundu, Jaurilaritzak edo Gizarte Zerbitzuek kasu hauetan ematen dituzten laguntzez informatu eta abar egiten dugu.

Informazioa kasu guztietan garrantzitsua dela onartzen dut, baina nahiko informazio badagoela pentsatzen dut. Askotan, gauzak ez dira gertatzen informazio faltagatik, baizik eta erosotasun edo nagitasun baten ondorioz, eta hau litzateke nahigabeko haurdunaldien kasua, haurdunaldi hauek erraz saihesteko modukoak izaten baitira gehienetan. Eta onartu beharra dago horrelako kasuak beti emango direla neurri batean. Dena den, osasun zerbitzuak ez gaude begiak itxita horrelako kasuen aurrean, eta arazo horiek bideratzeko prestatuta gaude.

Hala ere esan behar dut, nire ustez, orokorrean gazteak zentzudunak direla sexualitateari dagokionez”.

EDURNE ARANBARRI

||| **Herria.** Azkoitia. ||| **Lanbidea.** Udaleko
Parekidetasun Saileko arduraduna.

“Parekidetasun Saila orain bi urte sortu zen Azpeitiko Udalean, eta aldaketak sumatzeko nahiko denbora igaro ez den arren, oinarri batzuk sortzen ari gara. Gure asmoa ikuspegi feminista gizarteko arlo guztietan txertatzea da, gizarte parekide baten bidean urratsak emateko. Horretarako Emakumeon Mahaian sektore ezberdinetako emakumeak elkartzen gara eta hor erabakitzen ditugu garatu beharreko ildo eta ekimenak zeintzuk diren.

Irailean sexuen hezkuntza proiektua jarri

||| MARTXOAK 8 ||||||||||||||

|| Martxoaren 8 a ospatzeko Bilgune Feministak eta Parekidetasun Sailak hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Zinea, hitzaldiak, manifestazioak, txotxa eta abar izango festa eta errebeindikazioak uztartuz.

Martxoak 7 larunbata

19:00. Manifestazioa plazatik hasita
21:00. Txotx Feminista, Gaztetxean
23:00. Kontzertuak, Gaztetxean: Triki ta
Su eta Laket taldeekin

||| Martxoak 8 igandea

13:00. Manifestazioa Donostian,
Boulebarretik hasita
19:00. Kontzertua, Orkatz. Orkatz
Kultur Elkarteak eta Bilgune Feministak
antolatuta

(Asteazehar ikastetxeetan bideo emanaldiak)

||| Martxoak 12 osteguna

18:00. Hitzaldia Baigera Elkartean,
Azpeitiko Feminismo eskolak antolatuta:

Teoria Queer
Teoria poskolonialak
Ziberfeminismoa
Teoria zaharrak eta ekarpen berriak

genuen martxan ikastetxe guztietan, eta oso emaitza positiboak jaso ditugu. Proiektu honen barruan sexualitate bulego bat ere ireki da Gazteria Sailarekin batera, eta hileko azken ostiraletan nahi duenak bertara joaz edo interneta erabiliz jaso dezake aholkularitza zerbitzua. Bestalde, apiriletik aurrera formazioa eskainiko zaie emakume, gizon, adin-duei eta abarri. Proiektuari ikasturte amaiera emateko kale mailako hainbat ekimen antolatuko dira: bertso saioa, hitzaldia, antzerkia, Pirritx eta Porrotxen emanaldia, eta abar.

Bigarren proiektu nagusia berdintasun plana diseinatzea da, eta horretarako genero diagnosi bat osatzen ari gara, metodologia parte-hartzaile bat erabiliz. Diagnosian ondorioztatzen diren hutsuneetan oinarrituz, datozen urteetan garatu beharreko berdintasun politiken norabidea zehaztuko da.

Bi proiektu horiez gain hainbat ekimen ere martxan ditugu: martxoaren 8a dela-eta feminismo eskolak eta antzerki emanaldi bat antolatuta ditugu. Bestalde, garrantzia berezia ematen diogu mugimendu feministak antolatzen dituen ekimenetan herritarren parte-hartzea bultzatzeari, eta dei egiten diegu Azpeitian antolatuta diren ekimenetan parte hartze-ra.

Tamalez, gaur egun asko dira berdintasunean oinarritutako gizarte eredu batean bizi garela uste dutenak, eta gazteen artean kontzientzia piztea da gure erronketako bat.

Oraindik ere, genero estereotipoak eta rola oso barneratuta daukagu txiki txikitik, eta horiekin apurtzea lortu behar dugu.

Egia da azken urteotan aldaketak ematen ari direla eta emakumeok urteetan sarbiderik izan ez dugun eremu publikoan parte hartzen hasi garela. Motelago doa, ordea, gizonen eremu pribaturako jauzia, eta horrek eremu pribatuko zama emakumeengan egoten jarraitzea eragin du. Emakumeok ere badugu ►

MAMEN IRIARTE

irakaslea

“Niretzat ikasleak ez dira neskak edo mutilak; ikasleak dira eta aukera berdina ematen zaizkie denei”



ILAZKI LILI

Bilgune Feminista

“Emakumeen zapalketa indarkeria estrukturala da, hau da, gizarteko arlo guztietan ematen da, argi eta garbi”



►zer eginik gai hauetan eta berebiziko garrantzia hartzen du emakumeok kontzientzia indibidual eta kolektiboa lantzeak. Horretarako jabetze prozesu bat garatu behar dugu, gure parte-hartze soziopolitikoak aukera berdintasunean emateko. Norabide honetan, Gipuzkoako Jabetze Eskoletan parte hartzen hasiko gara datorren ikasturteko aurrera eta formazio saio ezberdinen bitartez emakumeen parte-hartze sozio-politikoak indartu nahi dugu”.

MAMEN IRIARTE

■ Herria. Azpeitia. ■ Lanbidea. Irakaslea.

“Urteen poderioz, neska eta mutilen rola itxuragabetu egin dira nolabait, baina oraindik ere mantentzen direla esan genezake, inkonizientean hor daudela oraindik. Hezkuntzaren arloa, azken finean, gizartearen islada da. Gizartean dagoena hemen ere ikusten da.

Hezkuntzan betidanik egon dira generoen artean ezberdintasunak; neskak beti izan dira arduratsuagoak eta aurrera egiteko kapazitate gehiagokoak, adibidez.

Ikasketei dagokienez, berriz, unibertsitate ikasketak aukeratzeko garaian ja ez da hainbeste nabari karrera teknikoak-eta aukeratzeko garaian. Gero eta neska gehiago dira ingenieritzak, arkitekturak eta abar aukeratzeko dituztenak eta mutiletan ere gero eta gehiago daude, adibidez, Magisteritza aukeratzeko dutenak. Ez da berdin gertatzen, ordea, heziketa zikloetara doazen ikasleekin. Heziketa ziklo teknikoetara ia ez da neskarik joaten.

Gu ikastetxetik saiatzen gara generoen arteko diskriminazio edo ezberdintasunak egoten. Niretzat ikasleak ez dira neskak edo mutilak, niretzat ikasleak dira eta aukera berdina ematen dizkiegu guztiei.


Nik hogeitaz urte daramatzat irakasle lanetan, eta aldaketak eman direla esan dezaket. Gazteen artean gero eta murriztagoak dira estereotipoak, eta ikasle horien gurasoen artean ere bai. Orain urte gutxi pentsaezina zen gizonetakoak etortzea ikastetxeko bileretara. Amen ardura zen. Orain gero eta normalagoa da aita etortzea edo biak etortzea bileretara. Pixkanak gauzak aldatzen ari direla nabaria da noski”.

ILAZKI LILI

■ Herria. Azpeitia ■ Bilgune Feministako kidea.

“Emakumeen egoeraren inguruan, azken urteetan aldaketak eman dira, baina oraindik ere gizarteko arlo guztietan izugarritzko hutsuneak daude. Sistemak ‘berdintasun faltsu’ bat islatzen du. Egoerari aurre egiteko, emakumeok geuk hartu behar dugu ideia horien kontrako kontzientzia, gure eskubideetatik ohartu, hausnartu eta aurrera ateratzeko.

Herrian Parekidetasun Saila Berdintasun planaren barruan egiten ari den diagnosiak garrantzia handia izango du aurrera begira. Hor azalduko dira benetan emakumeok ditugun beharrak eta eguneroko bizitzan pairatzen ditugun zapalkuntzak, eta hortik hasiko gara lanean dinamika ezberdinetan zentratuz. Planaren helburua zapalkuntza horiei aurre egiteko bitartekoak jarri eta benetako aldaketak emango direla baldintzatzea izango da. Emakumeen zapalketa indarkeria estrukturala da, hau da, gizarteko arlo guztietan ematen da, argi eta garbi. Oztupo horiek guztiek gainditzea beharrezkoa da eta ez arlo



Kimu bat
ASTE BUKAERAN IREKIA

Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 15005 www.kimubat.com

arte eta diseinu ikastegia

● Dibujo eta eskulanak (haurrak) 17:30/19:00

● Pintura 17:30/19:00

● Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

lentzeria
mertzeria

jose artetxe, 16

nabar

IRENE ALTUNA
LORADENDA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

pertsonalean bakarrik, baizik eta maila kolektiboan kokatu behar dira. Honekin batera herriko emakumeak mobilizatzea deitza gus-tatuko litzaiguke; izan ere, emakumeok guk geuk aldarrikatu beharra dauzkagu geure oi-narrizko eskubideak.

Aurten martxoaren 8rako, eta gaiaren larritasuna dela medio, errebindikazio gai nagusi bezala abortuarena aukeratu dugu. Gaur egun Euskal Herrian abortua delitua da. Legeak hiru kasutan bakarrik uzten dio emakumeari abortatzen: amari haurdunaldiak arazo

piskologiko edo fisikoak sortzeko arriskua dagoenean, bortxaketa kasuan edo fetuak malformazio arazoak dituenen.

Emakumeok ezin dugu libreki aukeratu, medikuek dute azken hitza. Aipatutako kasu hauetakoren bat ematen bada ere, medikua-ren etika moralara sartzen da jokuan; izan ere, berak esan dezake ez duela aborturik praktikatu. Osasun zentro publikoetatik sare pribatura joatera behartuta ikusten dira emakumeak. Datuak hor daude: Euskal Herrian praktikatu diren abortuen %95,6a sare pri-

batuan egin dira. Honek emakumeen *status* ekonomiko bat exijitzen du; edozeinek ezingo du abortatu. Eta aipatu ditugun oztopo legal eta ekonomikoez gain, garrantzitsuena gizar-teak sortzen duen presio moralak da, abortua-ren ondorio sozialak gogorrak izaten baitira.

Espainiako estatuan abortuaren inguruko legeak berritzeko proposamenak egiten ari dira. Aurrepauso bezala ari dira saltzen, baina ez da hala. Tamalez, orain hogeita bost urte emakumeak egiten ari ziren errebindikazio berdinak egiten ari gara".

Lan munduan zer?

Langabeziaren mamuak denok beldurtzen gaitu eta azkenaldian pairatzen dugun krisiak eragin argia du herritarrengan. Baina eragin handiagoa al du honek emakumeen artean?



Langabezia tasen igoerak, Inem-eko bulegoetako sartu-irtena handitu du azkenaldian.

Azpeitian, Eustat Euskal Estatistika Erakundeak emandako datuen arabera, 2009ko urtarillan 558 bizilagun zeuden langabezian Azpeitian, 14.157 biztanletik. Horietatik 281 (%50,3) gizonetzkoak dira eta 277 (%49,7) emakumezkoak. Estatistiketan, gutxi gorabehera, biztanleriaren %50a biztanleria aktiboa kontsideratzen da.

Datu horiek ez dute gehiegirik esaten, baina goazen Gipuzkoako tasekin eta Euskal Autonomi Erkidegoko datuekin konparaketa egitera. Gipuzkoan 33.070 langabetutik, 15.429 (%46,6) gizonetzkoak dira eta 17.641 (%53,4) emakumezkoak. Eta EAEko 110.093 langabetuetatik 44.911 (%40,79) gizonetzkoak eta 57.182 (%59,21) emakumezkoak.

Azpeitiko langabezia tasei dagokionez, ez da ezberdintasun handirik nabaritzen sexuen arabera; baina argia da, batik bat Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako datuak kontuan hartuta, emakume langabeen kopurua handiagoa dela gizonetzkoena baino.✱


ORKATX KULTUR ELKARTEA
Erdi Kalea, 24


ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK
Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOTIA

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97


Otamendi
Bida Denda
Golko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

Erregistroak euskaraz?

Informatika aplikazio berri batek erregistro zibileko tramitazioak euskaraz ere egin ahal izateko bideak erraztuko dituela dirudi.   Mailo Oiarzabal

Tresnak aukeran eta jarrerak auzian. 2005eko ekainaren 22ko 12/2005 Legearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistro Zibilean inskripzioak euskaraz egiteko eskubidea daukagu EAEko biztanleok. Jaiotza, ezkontza, heriotza nahiz tutoretza inskripzioak, erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egitea aukeratzeko eskubidea. Legearen letrak ez du izan, ordea, epaitegietako jardunean halako oihartzunik; ez, behintzat, orain arte. Eskubide hura gauzatzeko tresna eta mekanismorik ez da egon eta, oro har, justizia administrazioaren jarrerak, gauzak errazteko baino oztopoak jartzeko joera handiagoa erakutsi du. Testigantza ugari dago, aipatutako oztopoen lekukotza ematen dutenak.

Orain, Espainiako Justizia Ministeriotik bultzatzen ari diren justizia administrazioaren digitalizazio eta informatizazio prozesuaren eskutik, tresna berri bat dute edo izango dute eskura Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako epaitegiek. InfoReg izeneko aplikazio informatikoa ezartzen ari dira azken hilabeteetan estatuko epaitegietan. Besteak beste, aplikazio horren ezaugarrien artean dago elebiduna izatearena; aplikazioa gaztelaniaz zein eus-

||| DATUAK |||||

2007. urteko

abenduaren 19an inskribatu zen lehen aldiz euskaraz haur jaioberri bat. Aretxabaletako Erregistro Zibilean izan zen.

2008. urteko

urtarrilean Hizkuntz Eskubideen Behatokiak umeak euskaraz inskribitzeko prozedura aurkeztu zuen, gurasoei zer pauso eman behar zituzten jakinaraziz eta laguntza eskainiz.

14. barruti judizial daude

Euskal Autonomia Erkidegoan eta horietako bat da Azpeitiko. Amurrio, Balmaseda, Barakaldo, Bergara, Bilbo, Donostia, Durango, Eibar, Gernika-Lumo, Getxo, Irun, Tolosa eta Gasteiz dira besteak.

karaz erabili ahal izango dela, hain zuzen ere. Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailetik jakinarazi dutenez, "Madrildik datorren ekimen bat da, erregistroen digitalizazioarena eta, Justizia Sailak hala eskatuta, aplikazioaren euskarazko bertsioa ere erabili ahal izango da hemen".

Informatika eta pertsonak

Joan den abenduan hasi zen InfoReg aplikazioaren ezarpena EAEko auzitegietan. Ezarpena modu progresiboan ari dira egiten eta, Justizia sailetik adierazitakoaren arabera, martxoaren amaiera alderako hiru probintzietako barruti judizial guztietan aplikazio berria indarrean egongo dela aurrikusita daukate.

Azpeitiko da EAEko hamalau barruti judizialetako bat, baina badirudi hemen behintzat zertxo bat atzeratuko dela InfoReg aplikazioaren ezarpena. Azpeitiko Epaitegitik adierazpen ofizialik egin nahi izan ez duten arren, Uztarriak jakin duenez, apiril hasieran jasoko dituzte epaitegiko langileek informatika aplikazio berria ezagutzeko trebakuntza saioak, hortik aurrera lan-tresna moduan erabili ahal izateko.

Eszeptizismoa nabaritzen da, ordea, apli-



Azpeitiko epategietan apirilean jasoko dute langileek InfoReg aplikazioa ezagutzeko trebakuntza.

kazio elebidun berriak euskarazko inskripzioak normaltasunez egitea asko erraztuko ote duen galdetzean. "Informatika gauza bat da, eta pertsonak beste bat". Azpeitiko Epaitegian lan egiten duen lagun baten hitzak dira eta epaileen jarreraz ari da, batik bat.

Erregistro liburuak euskaraz

Orain arte, eta legeak lege, EAEn erregistro liburu guztiak gaztelaniaz bakarrik zeuden; Katalunian eta Galizian ez bezala, bi autonomia erkidego hauetan gaztelaniaz gain bertako beste hizkuntza ofizialean (katalanez eta

galizieraz, hurrenez hurren), bazeudelako aipatutako liburuak. Euskarazko erregistro liburu eza oztopo eta aitzakia, biak batera, izan da; besteak beste, seme-alaben jaiotza inskripzioa euskaraz egin nahi izan duten hainbat gurasorentzat.

Guztientzat ez, hala ere. 2007ko abenduan lortu zuten lehen aldiz guraso batzuk beren haur jaioberria euskaraz inskribitzea, hango Erregistro Zibilean liburu berezi bat irekitzea onartu zitelako. Lehen izen emate haren atzetik besteak arrapaladan etorriko zirela uste zutenak oker zeuden, baina. Lehen

aipatutako 'giza faktorea' tarteko: parean egokitzen den epailearen jarrera, alegia. Azpeitiko Erregistro Zibilean jaioberriak euskaraz inskribitzeko eskaerak ez omen dira orain arte asko izan, baina gero eta gehiago izango direlakoan daude bertan. Euskaraz inskripzioen bat egin dute, baina gehiago dira beren asmoa lortu ez dutenak.

InfoReg aplikazioarekin, liburuaren oztopo-aitzakia baztertuta geldituko litzateke, euskarazko erregistro liburu digitalak sortzeko aukera eskainiko duelako. Tresna eta aukera hor daude. Borondatearen zain, itxuraz. ■

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!

ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

www.mondragon.edu/prest

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA > AULA MAGNA

MARTXOAK 12 - 17:30 osteguna | **APIRILAK 25 - 11:00** larunbata
ARRASATE-MONDRAGÓN Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

MARTXOAK 28 - 11:00 larunbata
ORDIZIA Tel.: 943 88 00 62 // eurkia@goierrieskola.org

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA > AULA MAGNA

APIRILAK 4 - 10:00-13:00 larunbata
OÑATI Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

APIRILAK 2 - 18:00 osteguna
IRUN Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA > AULA MAGNA

MARTXOAK 12 - 18:00 osteguna | **APIRILAK 23 - 18:00** osteguna
ESKORATZA Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu

“Erabili eta bota” kontsumo estiloak baliabideak xahutu eta hondakin kantitate itzelak sortzen ditu. Objektuak berrerabiltzeko kulturak aldiz, hondakin gutxiago sorrarazten du, kontsumo mota arduratsuagoa izanik.

BERRERABILIZ

Hondakin gutxiago sortzen dugu

- **EROSKETAK EGITERAKO ORDUAN HASITA:**

Aukeratu itzultzeko edo berriz erabiltzeko ontziak.



- **SAIHESTU ERABILERA BAKARREKO PRODUKTUAK:**

Ezpain-zapiak, mahai tresnak, bizar aitzurrak...



- **SAIATU KONPONTZEN BOTA AURRETIK:**

Jostailuak, etxetresnak, arropa, zapatak, erlojuak, aterkiak...



- **ZAHARKITUTZAT JOTZEN DUZUN TRESNA HORI BOTA AURRETIK,**

Saiatu haren errendimendua hobetzen, esate baterako, ordenagailuaren memoria handitu...

- **ZUK BEHAR EZ DUZUNA BESTE BATEK ERABIL DEZAKE:**

Altzariak, etxetresnak, liburuak, jostailuak, arropa...



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >

GARAPEN IRAUNKORREKO
DEPARTAMENTUA
DEPARTAMENTO DE
DESARROLLO SOSTENIBLE



UROLA ERDIKO
Zerbitzu Mankomunitatea
Mancomunidad de Servicios
DEL UROLA MEDIO

|||||kepa urbieta|||||



|||||igor aranbarri|||||



Posible bada

Igor, maitea! Esadak, beste behin, promesa guztiek iraungitze data bat diatela, bukatu egiten direla, hil eta errealtate bihurtzen direla. Promesa sortzailea promesa hiltzailea ere badela, izan behar duela, bederen. Eta ahal baduk, esadak ere promesen biziraupenak ilusioarenak baino motzagoa izan behar duela. Halaxe, gordin-gordin.

Ausartzen bahaiz, aitortu iezadak, promesak hiltzen dituztela esateaz gain, ez direla bizi aurkariari eginiko kritiketatik, burletatik edo, singleki, aurkaria zapaltzetik. Gainera, elkarbizitza ereduie buruzko moralak emateko zilegitasuna dutela, inolako lotsarik gabe. Hori horrela dela aitortu iezadak, gordin, ahal duan garbien.

Hau errazagoa egingo zaik: sinets arazi iezadak, aurkeztan direla dakitelako gizartea hobetzeko gai badirela. Horregatik hitz egiten dutela begietatik grina dariela. Ez dutela boterea ezagutzen, eta boterearen maitasunari uko egiteko gai direla, hain zuzen, herria dutelako maite. Erlijiorik ez duen Jainkoak aukeratuak direla, eta ez herriak (begira asko esatea dela hori!). Ea lortzen duan.

Emadak arrazoi bat alderdi bat ez sortzeko. Aulkiari uko egingo dion alderdiaren alde lan ez egiteko. Esan ez litzatekeela ederra izango hauteskundeak irabazi eta: ez ospatzea, aginte makila hartzerainor ez agertzea; lehendakaririk ez egotea; ez promesarik, ez boterarik... Egun batzuetan zehar, sikiera. Ez litzatekeela lezio xumea munduarentzako, guztiontzako.

Izan ere, emadak arrazoi bat jendeari begietara begiratu eta ez esateko eman duela botoa, bai, baina alferrik. Hori guztia esan, aitortu eta arrazoitu iezadak, sinesteko moduan, min emango didaun beldurrik gabe.

Mus, enbido, paso!!

Aupa, gizon! Barka iezadak baina ez zaukaat hiri ipuinak kontatzeko asmorik. Bi urte zaramazkiagu elkarri idazten eta geu ondo bizi bagaituk ere, zenbait kontuk okerrera egin ditek nabarmen. Hitz egin diagu hauteskundeez, ilegalizazioez, atentatuez, injustizie, nahiez, ezinez... Gu ondo bizi gaituk baina... gauzek ez ditek bide onik hartu. Eta berriro, beste behin, zerbait aukeratzeko eskatzen zigutek.

Bitidanik sinetsi izan diat antolakuntzan, bakoitzak bere iritzia ematean, eztabaidan. Hitzek asmo ona alboan baditek, gauza handiak eraikitzen ditiztek. Txikiekin hastea ere ez legokek gaizki. Ezta-

baida baten helburua, ez-bai hori adostasunean bihurtzea duk zinez. Baina hemen batzuen ezetza eta besteen baietza, nork ozenkiago zabaltzea baino ez duk nahi, horrela eztabaida bide izate-tik helmuga izatera pasa zaiguk. Tristea.

Baina haxe duk dagoena. Hauteskundeak ditiagu, eta beste behin, aukeratzeko eskatzen zigutek. Kontuan hartuta, ez aukeratzeta aukera bat dela... ez daukak aukerarik ez aukeratzeko. To! Aukera ezak orain! Nahi edo ez nahi, barruan sartuta gaudek.

Bitartean, konturatzen bahaiz, bozka ostean, talde guztiek irabazten ditek. Emaitzak ikusi eta denek lortu ditek ezer positiborik. Denak garaile! Eta festa bat ospatzen ditek, kolore ezberdineko ikurrak astinduz! Beraz, ez zagok galtzeko beldurrik. Gero, hautetsiak izendatu ostean dena mus partidetan erabakitzea onena. Zertarako Legebiltzarra? Azkenean, lau konturekin ibiltzen dituk beti bueltak, esaldi berdinak errepikatzen, handi nahiz txiki, batzuk paso, besteak jo, pareak edo meriak egiten, zein engainatuko, jokurik osatzeko lain puntu dituzten kontatzen. Nik, MUS!



|||||KEPA. “Igor, emadak arrazoi bat alderdi bat ez sortzeko”

|||||IGOR. “Kepa, gu ondo bizi gaituk baina... gauzek ez ditek bide onik hartu”

Bost urte hitz eta pitz

‘Urola Kostako Hitza’ egunkariak bost urte bete ditu. Ospatzeko moduko urtebetetzea, eta horretan dabilta. Azpeitira ere iritsiko dira ospakizunak, bertso jaialdi batekin. 📍 Mailo Oiarzabal

Joan den otsailaren bost urte bete zituen *Urola Kostako Hitza*. Bost urte, lehenengo zenbakia plazaratu zutenetik. Bost urte, hitz eta pitz, Oriotik hasi eta Azkoitia bitarteko herri guztietan gertatzen diren berri emanez, euskaraz.

Ospatzeko moduko urteurrena dela pentsatuta, Urola Kosta eskualdeko herrietan hainbat ekitaldi prestatu dituzte, otsailaren 19an Zumaian ospatu zuten urtebetetze festa abiapuntutzat hartuta, nolabait.

Bertso festa

Azpeitiraino ere iritsiko da *Hitza*ren urtebetetzearen festa oihartzuna.

Bertsolarien ahotik iritsi ere. Erriarraitz Bertsozale Elkartekoan laguntzarekin, bertso jaialdia an-

DATUAK

Zer. Bertso jaialdia.
Eguna. Martxoak 14 (larunbata). **Ordua.** 22:30
Tokia. Izarraitz pilotalekua.
Antolatzailea. Urola Kostako Hitza, Erriarraitz Bertsozale Elkartearen laguntzarekin.

tolatu dute bailarako egunkarikoek, bailarako bertsolarien parte-hartzearekin. Uxue Alberdi, Nahikari Gabilondo, Jon Maia, Iñaki Gurrutxaga, Joan Joxe Eizmendi *Loidisaletxe* eta herritarren aurrean ariko den Jokin Uranga azpeitiarra dira Izarraitz frontoian jarriko den oholtzaren gainean bertsotan jardungo dutenak. Gai jar-tzaile lanetan, berriaz, Xabier Azpi-llaga ariko da.

‘HITZA’ ZENBAKITAN

2004

ko otsailaren 20an ikusi zuen argia *Urola Kostako Hitza* euskarazko egunkariak.

8

‘Hitza’. Behe Bidasoan, Busturialdean, Goierriin, Donostian, Lea-Artibai eta Mutrikun, Oarsoaldean eta Tolosaldean ere badute. 🌟

BESTERIK

1 Sokamuturra argazkitan

Aurtengo karnabaletako sokamuturrean hartutako irudirik ederrenak ikusgai jarriko ditu Azpeitiko Argazki Elkartek udaletzeko beheko solairuan. **XXX. Argazki Lehiaketara** lanak aurkezteko epea hilaren 10ean itxiko da. **Egunak.** Martxoaren 14tik 28ra. **Ordua.** 18:00-20:00 (astegunetan), 12:00-14:00 (asteburuetan) **Tokia.** Udaletzeko beheko solairua. **Antolatzailea.** Azpeitiko Argazki Elkartea.

2 Sanjoseak Loiolan

Asto lasterketak, poniak eta zezen txikiak, herri kirolak (Goenatxo eta Irigoien harri jasotzen, Larretxea eta Arrospide aizkoran), trikiti doinuak eta festa girorik ez da faltako Loiola aldean. **Egunak.** Martxoak 7, 19 eta 21. **Tokia.** Loiola auzoa. **Antolatzailea.** Loiolako Festa Batzordea.

3 Azkoititik Azpeitira korrika

Diego Garciaren omenezko Azkoitia-Azpeitia Nazioarteko Maratoi Erdiak XVI. edizioa beteko du aurten eta, ohi bezala, atleta herrikoi eta elitekoak elkartuko ditu.

Eguna. Martxoak 28 (larunbata). **Irteera ordua.** 16:30 **Antolatzailea.** Xeye Atletismo Taldea. 🌟

||Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda



Urola Kostako Hitza-k bost urte daramatza gure herrietako albisteak euskaraz ematen. 📍 Mailo Oiarzabal

1849-02-29

Eliz kaleko hainbat etxe txukuntzeko agindua. Eliz kalean ziren Indokua, Txapakua, Bikuñaenea eta Santikua deitutako etxeen jabeek, etxe horietan txukunketa lanak egitea agindu zitzaizen Udaletik, lauek ere hondamen itxura agertzen zutelako. **Iturria:** Azpeitiko efemerideak liburua. Imanol Elias

Beharrezko telefonoa

Gaur egun gure bizitza erabat aldatuko litzateke telefonorik gabe, benetan beharrezkoa egin zai-gunez. Izan ere, hurbilean behar izaten dugu etxean eta kanpora ateratzean, berriz, gurekin eramaten ohiutako gara, derrigorrezkoa bihurtuz horrela.

Gogoratzen ditugu telefonoa erabat zabaldurik gabe zeneko urteak, eta albiste pasatzeko nolatan konpontzen ziren baserritarrek, garia jotzeko unean iristen zenean. Askoren beharra izaten zen langintzarako eta, auzotarrei deitzeko, izara zuri bat zabal-tzen zen, nahitik ikus zitekeen zelaian.

Aurten beteko dira ehun urte telefono probintzia-la martxan jarri zela Azpeitian. Gipuzkoako Aldun-diak ahalegin guztiak egin zituen garai hartan telefo-noa lurraldeko herrietara zabaltzeko. Horrela, 1909ko urtarrilaren 4an eginiko udalbatzarrean

Aurten beteko dira ehun urte telefono probintziala martxan jarri zela Azpeitian

erabaki zuten agintari azpeitiarrek lokal berezi bat eskaintzea Aldundiari, zentral bat jarri zezan.

Hilabete bat geroago gutxi gorabehera erabaki zuen Udalak, otsailaren 2an eginiko udalbatzarrean, aurrez Santo Domingo komentua izandako eraiki-nean eta Urola ibai aldera, 6,40 eta 13 metrotako lokala eskaintzea. Bertan egingo ziren egokitze lanak, ingeniariak osatutako planoan martxoaren 14an ontzat hartu ondoren, eta Galo Barrenak guz-tia zuzendurik. Lanak amaitutakoan, inolako erren-tarik gabe utzi zion herriak Aldundiari telefono zen-trala jartzeko lokala.

Horrela hasiko zen martxan telefono probintziala Azpeitian, eta Urrestillara iristen ere ez zuen denbo-ra luzea igaroko. Mintzaleku bat jarriko zuten han, une hartan udaltzaina zen Frantzisko Inazio Odri-zolak zuen lokalean, hain zuzen ere, udaltzainari urtean hogeita bat pe-zeta ordainduz.

imanol elias



EZAGUTZEN?

Josepha Antonia Amenabar

1733an jaioa, hogeita bost urte bete ondoren Frantziskanen komentuan sartu eta abadesa izatera iritsi zen, 1807an. Kargu horretan zela hil zen 1811n, Josepha Santo Domingo izenpean.

Juan Abarrategi

Abarrategi izenarekin ezagututako erremonte jokalaria 1895ean jaio eta 1912an jokatu zuen lehen partida, Iruñean. Bere garaiko izarretako bat izan zen.

Iturria: Azpeitia, 500... Azpeitiarrek eta herriarekin bat eginak liburua. Imanol Elias

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12


Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Ekain
ALBAILARI KLINIKA
Larrialdiak:
943 15 16 40



AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

aizpuru@aizpuru.net



"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"
URBISTONDO MARGOAK
Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



HITZ GEZIDUNAK



	Udalerri nafarra	▼	Beka bat du	▼	Gaude	▼	Errenkadak	▼	Aiarako biztanle
	Ez du osperik		Garbizale		Toki		Udalerri nafarra		
	▶		▼		▼		▼		▼
	Lukurreriaz jokatzan du	▶							
	Haritzen baso								
Nafarroako ibarra	▼	Haranako biztanle	▶	▼					
Gizalege		IRUDIAN							
▶		▼					Ez du entzuten, sor	▶	
							Irudizko izaki		
Zera egin	▶					Jo eta jo	▶	▼	
Kopuru						Nahastura trinkoa			
▶			Anoetako biztanle	▶		▼			
			Euskal alderdi ohi						
Azkeneko	▶		▼		Saudi Arabiako hirib.	▶			Baldintzetan
Esaten zioten					Talo, bokalik gabe				
▶					▼		Abertzaleen Batasuna	▶	▼
							Kontsonantea		
Toka, nau	▶				Lauzkatzea laguntza	▶		▼	

* Azpeitiarekin muga egiten duen herria

|||HITZ GURUTZATUAK|||

EZKER ESKUBI. 1. Trebetasun, abilezia. 2. Euskal alfabetoaren 8. eta 6. hizkiak. Karrantzak auzoa. 3. Eriroz. Deba, bokalik gabe. 4. Asiako mendebaldeko estatua. Heldu aditzaren oina. 5. Agiri mota. Pilota jokaldia. 6. Bi gehi bi. ... pare, aurrez aurre. 7. Dago. Basurdearen antzeko ugaztun. 8. Indiako biztanle. Kasik, abantzu. 9. Asmakizunak.

GOITIK BEHERA: 1. 1. Ihes egitea, ihesa. 2. Hegoafrikako hollandar kolonoen ondorengo diren afrikanerren hizkuntza. 3. Bokala. Baratze. Dima, bokalik gabe. 4. Hostoa. Emakume izena. 5. Errepikatuz eta haur hizkeran, oinez ibiltze. Broad ..., munduko hamabigarren gailurra. 6. Emakume izena. Madarikazio, birao. 7. Selenioaren ikur kimikoa. Leku hartara. Tona. 8. Txerrikeria. 9. Pluralean, aitoren semeek osatutako gizarte maila.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									



Egilea: Luma

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

A	K	Z	U	A	L	●	K	I	A	N	●
B	A	●	N	E	T	O	S	T	O	I	Z
●	D	A	I	R	●	N	E	Z	T	A	●
R	A	T	O	N	A	●	S	I	S	O	D
A	K	O	J	●	U	T	A	R	E	Z	●
R	O	G	●	E	D	I	B	A	Z	G	I
A	R	A	N	A	R	A	H	●	L	●	●
I	R	A	R	U	K	U	L	●	●	●	●
A	B	E	G	A	P	E	S	P	O	●	●
●	L	●	K	●	B	●	E	●	●	●	●

HITZ GURUTZATUAK

K	A	T	E	K	A	S	M	A	S	A	V
I	A	●	R	A	I	N	D	I	A	R	I
I	A	R	I	●	P	E	K	A	R	I	●
Z	E	A	R	P	U	L	A	U	●	●	●
E	K	A	S	●	A	T	A	K	T	A	●
L	E	H	●	A	I	R	I	S	I	R	I
B	D	●	A	K	R	O	E	R	O	●	●
O	R	E	A	N	●	R	A	F	H	●	●
U	N	S	A	U	I	O	T	A	I	A	●

ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?



III ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Martxoak 20 (ostirala) III NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia III IRABAZLEARI SARIA. Larchago upategiko ardoak III PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da III ZER DAGOEN SOBERANALA FALTAN ADIERAZI.

ZURE IZEN-ABIZENAK

TELEFONO ZENBAKIA

UZTARRIAREN OTSAILEKO ARGAZKI LEHIAKETA

ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?

ESKUINEKO ETXEKO GOIKO BI LEIHO

IRABAZLEA



Patxi Galarraga Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 103. irabazlea. Larchago upategiko ardo sorta eraman du etxera, sari gisa. Argazkian, Patxi Galarraga, saria eskuetan duela.



**Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008
GETARIAKO ELKANO JATETXEKO
ARDO KARTAN**

Odrizola Ardoetan

Urteko ardo berria, bodegako mahatsik onenarekin egindakoa.

Pasta

Denok dakigu elikadura orekatua beharrezkoa dela osasun ona izateko; osasun onak, berriz, osasun-hezkuntza eta informazio osoa behar ditu.

Egia da egunero kontsumitzen dugun energiaren %35a karbono hidratoek eta azukreek ematen ditutela; hauek, bere aldetik, zerealengandik datoz: besteak beste garia, arroza eta artoarengandik.

Mendebaldeko gure zibilizazioa, batez ere gariz egiten den ogi eta pastarena da. Bi era hauen arteko ezberdintasunik ia ez da nabari; hori bai, ogiak ur gehiago izaten du. Gure inguruan pasta gutxi jaten dela esaten dute. Egia da, eta beharbada horregatik jaten dugu ogi asko.

Elikagai osasuntsua da pasta, erraz eta era askotara prestatzen dena, bakarrik edo beste produktu batzuekin batera: arraina, haragia, barazkiak...

Ematen diguten energiaren aldetik, ehun gramo pastak eta ehun gramo ogik energia berdina ematen dute; eta bestalde, 350 kaloria, hiru oilo arrautzek bezala. Patata frijituen ordezkioa izan daiteke. Erraz liseritzen da eta kolesterola eta azido urikoa murrizten laguntzen du.

Diabetikoek kontuz kontsumitu behar dute, eta iraupen luzeko kirola egiten dutenentzat gomendagarria da; oso ondo dakite hori txirrindulariek.✕



|||||||julian bereziartua|||||||

IONE ARAMENDI *fruta saltzailea*



1. Fruta bat?

Neguan laranja eta udan gereziak.

2. Urteko garai bat?

Apiriletik abuzturakoa.

3. Kolore bat?

Beltza.

4. Dendari ez bazina...

Kazetari.

5. Fruitu lehorrak ala zuhaitzetik erori berriak?

Erori berriak.

6. Konpota, erreta, zukua, mazedonia...

Zukua.

7. Egunean sagar bat eta osasuntsu?

Jakina baietz!

8. Tropikala ala bertakoa?

Bertakoa.

9. Jan duzun frutarik arraroena?

Ez dakit, ni oso tradizionala naiz! ✕

🍷 Arantxa Aldalur

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

|||eguneko albisteak |||irakurleen erantzunak |||eguneko argazkia |||bideoak |||blogak |||inkesta |||agenda |||bitxikeriak
|||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak,
hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak
|||eguneko efemerideak |||gida komertziala...

|||sartu sarean, eta hartu parte |||egunero 7.000 orrialderen bisita
|||orain ikusi: martxoaren 1eko hauteskundeak Azpeitiko emaitzak



guskaraz bizi
nahi dugunon
herrira



16. korrika aek

Tutera-Gasteiz 09
marxoaren 26tik apirilaren 5era

izan zaitez aek korrika laguntzailea

12 euroren truke,
garrantzitsuena lortu duzu:

**KORRIKA
LAGUNTZAILEA** izatea.

Honez gain pina eskuratuko duzu eta,
eskaintza orria betez gero, txartelak
ematen dizkizun abantailak ere bai.

www.korrika.org





Bukaera ikusie zinda

Hain maitea duen
zaletasunaren ingurukoak eta
beste hainbat kontu ahotan
hartuta dator auto-gidari
ezaguna. 🐍🐍 Nekane Zinkunegi

T

xikitan haur “bihurria eta urduria” zela esaten diotela dio Iñaki Alberdik. Auzoan berarekin batera beste hiru lagun ibiltzen omen ziren eta, kasualitatez, laurak izen berekoak izan. *Iñaki Txikiye* goitizena hortik datorkiola kontatzen du. “Lau lagunaren artean bi, Iñaki *Rubio* eta Iñaki *Moreno* bezala izendatzen genituen”, dio; eta lauetan txikiena bera ez bazen ere, geratzen ziren bietan hala izanik, “hirugarren bat Iñaki *Haundiye* zen eta niri *Iñaki Txikiye* izatea egokitu zitzaidan”, gogoratzen du, irribartsu.

Gogoan du baita, mutil koskorra zela esku-pilotarako zaletasuna zuela: “lagunartean eta ibili ohi nintzen, 13 urte inguru nituela, Betharramdarretako lehiaketan parte hartu banuen ere”. Egungo pilotarien artean Abel Barriola leitzarra “oso gustuko” duela aitortzen du. Hala ere, abiadura eta arrisku sentsazioa betidanik interesatu izan zaizkio. “Bizikletan gustura ibiltzen nintzen, aldapetan batera eta bestera”, kontatzen du horren harira. Lagunekin ilundu artean jolasean ibili eta gainerakoak etxera erretiratu ostean, sarritan

bere txirrinduekin bira ederrak egindakoa omen da.

Gaztetxotako garai horiekin oroitzuz, gaur egungo haurren dibertitzeko moduaren inguruko hausnarketa bat egiten du Alberdik: “lehen kaniketan eta gisako jokoetan ibiltzen ginen, elkarrekin egoten ginen. Orain haur bakoitza bere ordenagailuaren aurrean, bakarrik entretenitu ohi da”. Hau hala izateak, “lehengo zuzeneko kontaktu hori falta” dela erakusten duela uste du, bere ustez “aberasgarriagoa” zen zerbait, hain zuzen. Izan ere,

Iñaki Alberdik 14 eta 9 urteko bi seme ditu. Hauen inguruan, "saiatu naiz euren garaiko hurrek egiten dituzten gauzak egitera ohitu daitezen", esaten du, bere zaletasuna inposatu gabe. Semeetako batengatik, oso gustuko ez badu ere, futbol partidak ikustera ohi-tzen ere ari da.

'Xague'-ren pausoen atzetik

17 urte inguru zituela hasi zen auto-krosean. Etxekoei ez omen zien honek grazia handie-girik egiten, —"amari, egia esan, ezta orain ere", dio *Iñaki Txikiye*-k—. Joxe Labaka *Xague* azpeitiarraren pausoak segituz hasi zen nola-bait eta pertsona honekiko duen mirespenaz mintzatu da: "pilotu ona izateaz gain, pertsona oso ona da". Bere ibilbideari dagokionez, balorazio positiboa egiten du, izan dituen aukerak aprobetxatu dituelakoan dago eta hemendik aurrera, Euskal Herri mailan parte hartzen jarraitu nahi luke.

Ez ditu beti ondoan izan dituen lagun leialak ahaztu nahi izan. "Lagunengatik izan da guztia, asko kostatzen den kontu bat da hau eta laguntza ezinbestekoa da", nabarmen-tzen du. Kopilotu bezala berarekin izan ditue-netaz ere oroitzen da: Pedro Tobar lehenen-goa, bere koadrilako *Beltxa* ondoren, Ibon Serna geroago eta Jorge del Cid gaur egun. Bere hitzetan, ez du oraindik auto lasterketen mundua noiz utziko duen aurreikusi. "Ahal den artean segi nahi nuke, azkenean hau bizio bat baita", aitortzen du Alberdik.

Gaur egun saiatzen ari diren pilotu gazteek "meritu handia" dutela aipatzen du. Aholku bat ematekotan, "diru asko behar da, baina ahal badute aprobetxatzeko esango nieke, talentu handiko jende asko baitago", esaten du.

Egiten duena kirol bezala definituko lukeen



1. Arrateko Igoeran lehen aldiz atera zenekoa. 18 urte zituen. Kotxea Seat 1430 bat zen, 1800aren motorearekin. **2.** Alberdi, elkarriketa emateko unean. **3.** Gaztetako argazkia.



Lagunartean

|| Bere bizitza "erabat normaltzat" jotzen du Iñaki Alberdik. Lanak eta autoen 'bizioak' kentzen ez dizkioten tarteetan lagunekin egon zalea da azpeitiarra.

Horrela, eguneko momenturik gustukoena lanetik irten eta bere lagunekin elkartzen denekoa dela aitortzen du, "autoen saltsan" ibiltzeko, beti ere. Ogibide nagusi ez, baina benetako bokazio du, izan ere, lasterketen mundua. Ostegunero soziedadean elkartu eta betiko lagunekin afaltzea ere ohituren artean dauka.

galdetuta, berriz, ezetz erantzun du. "Ez du honek beste hainbat kirolerarako beharrezkoa izan daitekeen prestakuntza fisikorik eskatzen", dio. Azken hau berak konprobatu zuela ere badio gidari azpeitiarrak: "askorik prestatu gabe" San Silbestre eguneko lasterketa batean irten omen zen, korrika, eta "ederki sufritu" zuela aitortzen du.

Gaur egun, obretan dihardu lanean. Gaztea zela, aitarekin batera hasi zen eta, 45 urterekin aitzak istripua izan zuenetik, bere kabuz dabil. Iñaki Alberdiren esanetan, "zale-tasunaren aurretik, lana eta gainerako kon-tuak daude".

KIRURI
JATETXEA

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

LUBA
aholkularitza
laborala, fiskala, kontablea

- AHOULKARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45
Tel.: 943 15 75 25 - Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

Koh Tao
OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

ORDULARI

Jose de Artetxe, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	0837 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulat. larrialdia	0254 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	8532 97
DYA-Donostia	4646 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztartaria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	8138 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	8111 00
Berria	94330 4030
Gara	943316999
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943371545
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	94301 23 00
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Telebista	8513 05
ETB	9430117 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

FARMAZIAK (MARTXOA)

EGUNEZ

1-6-12-18-21-22-24	2-7-8-13-19-25	3-9-14-15-20-26-30
Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).
943 811350	943 811949	943 815974

GAUEZ

1-12-24	2-7-8-20	5-17-18-21-22
Aranburu (Azpeitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).
943 811350	943 852989	943 851966

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Martxoaren 25ean izango dute hitzordua, 18:00tik 21:00era, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	

943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ■ Asteguna: 09:00-13:30 ■ Larunbata: 09:00-13:00 UDALTZAINGOA ■ Egun osoz irekita egotenda ANBULATEGIA ■ Egun osoz irekita egotenda IGERILEKUA ■ Astelehena: 14:00-21:00 ■ Beste astegunak: 07:00-21:00 ■ Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ■ Igandea eta jaiegunak: 09:00-13:00 ■ Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ■ Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ■ Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA ■ Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ■ Larunbata: 10:00-13:00 ■ Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 ZAPO TXOKO ■ Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ■ Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



ESKUALDATZEA.

Enparan kaleko farmazia eskuz aldatu berri da. Orain arte Garcia Miguel farmazia zena, hemendik aurrera Eizagirre farmazia izango da. Telefono zenbakia mantendu egiten dute.

4-10-16-27-31	5-11-17-23-28-29
Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).
943 811274	943 080258

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPERELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

■ autobusen ordutegi osoa:
www.uztartaria.com/azpeitia/
autobusak

11-23-28-29	13-25
Jacome (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).
943 080258	943 811949

PELLO ARANBURU

Sevillan bizi da

“Azpeitian sevillan baino hobeto jaten da”

Erdi kalean jaio zen baina Sevillan (Andaluzia, Espainia) bizi da. Ordago izeneko jatetxea du bertan. 📍 Arantxa Aldalur

Noiz joan zinen Azpeititik Sevillara, eta nolatan?

1972. urtean etorri nintzen hona lan kontuentatik eta bertan geratu nintzen. Hor garraio-laria nintzen.

Zer du Sevillak Azpeitiak ez duena?

Sevillak eta Azpeitiak ez dute zerikusirik. Oso ezberdinak dira. Hemen parke handiak, monumentu asko dago, eguraldi epelagoa, jendea ere oso ezberdina da azpeitiarrekin konparatuz gero... Azken finean, hiri handia da Sevilla, bere gauza on eta txarrekin. Ni hona etorri nintzenean oso-oso hiriburu eder-rra zen.

Zer botatzen duzu faltan Azpeititik?

Lagunak, familia... baina denborarekin gero eta gutxiago. Lehen nahiko sarri joaten nintzen Azpeitira, baina orain udan joaten naiz eta kontaktua lagun batzuekin-eta galdu samartua dut.

Etorri al zara aspaldian hona?

Lehen esan bezala, udan izan nintzen Azpeitian eta ezin izan nituen lagun batzuk-eta ikusi, abuztuan beraiek ere herritik kanpora joaten direlako. Orain, agian Aste Santuan

joango naiz. Aste Santua hemen ere polita izaten da, baina ja urte askotan ikusi dut prozesioa.

Zer oroitzapen dituzu? Asko aldatu al da Azpeitia?

Azpeitian lehen Enparan kaleak, Erdi kaleak, Eliz kaleak, Sanjuandegik, Landetak eta Txapel baserriak osatzen zuten. Orain izugarriko herria egin da. Sevillan ere berdina gertatu da eta garai batean zentrotzat jotzen ziren gunek hustu egin dira.

Azpeitiar asko topatu al dituzu Sevillan pasieran?

Hemen bizi da beste familia azpeitiar bat, Abetako Odriozolatarrak. Haiek ni baino lehenago etorri ziren hona bizitzera, eta beste bizpahiru ere bai, baina bestela ez zaizkit asko tokatu. Azpeititik jendea Feriara edo zezenetara etorri ohi da eta zaila da tokatzea.

Non jaten da hobeto, Azpeitian ala Sevillan?

Nik sei urte daramatzat hemen jatetxe batekin eta Sevillan ondo jaten dela deritzot. Baina, hala ere, Azpeitian hobeto jaten da Sevillan baino... 🍷



1. Pello Aranburu, bere jatetxeko atarian, Sevillan. 2. Aranburu 1972. urtean joan zen Sevillara bizitzera. 3. Jatetxeko barran.

719 kilometro dago Sevilla Azpeititik.



Artxabaletazarra Potosin

Joxe Migelengandik jakin dut... Eguzkiaren seme-alabak ziren. Inkak. Gaur egungo Perun bizi ziren. Inken inperioa aberatsa ez ezik, oso aurreratua zen matematika, astronomia eta arkitekturan... XVI. mendean espainiarrak iritsi eta zeharo txikitu zuten inperioa. Gotorlekuak jaso zituzten, aginte politiko eta kulturala indarrez ezarri, aimara eta kitxuen kontzientzia desagiten saiatu. Espainiarren erregeordeak Limatik agintzen bazuen ere, Sucre hiria leku estrategikotzat jo zuten Peruko goi-lautadan... Indioak azpiratu eta ahal zuten guztiaz jabetu ziren konkistatzaileak. 1532ko kontuak omen...

1545 urterako, Potosiko zilar meatzeak bereganatuak zituzten espainiarrek. Mende-an hartu zituzten indioak eta meatzeetan lan-nera bortxaz behartu. Historialarien arabera, "espainiarrek engainatu, lapurtu eta debalde jaten dute, lanik egin gabe, erasoa jo eta zernahi osten diete erresuma honetako herri, bide eta tanboetan bertako indio behartsuei, nola etxaldeak hala lurrak eta emakumeak eta alabak, eta mestizo eta cholo asko egiten dituzte". Espainiatik hara joandakoen artean, jatorri ezberdineko herriak ageri ziren eta laster sortuko ziren haserre eta liskarrak, bi bandoren artean: batean, euskaldunak nabarmenduko dira, portugaldarrek eta perutarrek batera; vicuñatarak, bestean, andaluzak eta Extremadurakoak ondoan dituztela.

Arantzazu Potosin

Joxe Migelek kontatzen du 500 urte geroago pasadizoan zela Potosiko hirian, Bolivian. Bost fraide euskaldun zituen ondoan, hango San Frantzisko eliza ikusten. Gidariak, bertako fraide batek, elizaren balio historiko eta artistikoak erakutsi zizkien, ohi denez, eta, baita, azkenean, korupeko zoko ilun batean zegoen ama birjinaren irudi zahar bat ere. Hauts eta amaraun artean egonagatik ere, arantza-enberraren gainean zegoela konturatu eta Arantzazuko Andre Mariaren irudia



|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Indioak azpiratu eta ahal zuten guztiaz jabetu ziren konkistatzaileak. 1532ko kontuak omen...

behar zuela erabaki zuten denek, fraide guztiek batera.

Horrela hasi zen Joxe Migel Esnaolaren abentura Potosin.

Sasoi hartan Copacabanan (Bolivia) bizi zen Joxe Migel, fraide frantziskotar, eta opor garaian bizpahiru aldiz itzuli zen Potosira, han ikusitako Andre Mariaren irudi haren historiaren peskizan. Jakin zuen Arantzazuko Andre Mariak Potosin bertan izan zuela lehenengo tronua Ameriketan. Hasi zen hariari tiraka eta Arantzazuko Andre Mariak Potosiko hirian izan zuen historia ondu zuen. Arantzazuko ama birjinaren Kofradiak erlijio historia idaztera jarri zuen Joxe Migel eta, horrekin batera, euskaldun erbestekoen elkartasuna, Europak XVI. mendean bizi izan zuen ekonomia iraultza, kolonizatzaileek abiarazi zuten lan antolamendu gaiztoa, Potosi hiriaren bat-bateko loraldia eta ondoko eroraldia..

Oñazko Artxabaletazarra baserrian jaiotako Joxe Migel Esnaola Garmendiarengandik jakin dut, haren Arantzazuko Andre Maria Potosi hirian liburutik...✕



Zuei esker posible izan da!

Juan Mari Ibarzabal

IKASBERRI K.E. XI.



Federatu maila • Eskolarteko krosa

EUSKADIKO XLV. TXAPELKETA

2009ko otsailaren 8an AZPEITIA Goenako kanpan

ALTZARIAK Lan MOBEL		GRUPO sarralle TALDEA		ALTXUNA Y URISA S.A. Ereikuntzak	
LAZKANO Taldea		Biele		LARRANAGA ZERRATEGIA, E.M.	
Kima bat		sammic		PEÑAGARICANO ETXEGILEAK EM	
GRUMAL		CORRUGADOS AZPEITIA Papea Krosak Sarango		SORALUZE LEHTIOAK	
JUSTALDI		AZKUNE		IPINTZA MUNTAKA ELEKTRIKARIK	
EROSKI center		GLUAL		domusa	
Coca-Cola INSALUS		GURE AMETSA		agirre oparidenda	
ZUBIOLA		LAGUN ARO ASSEGURUAK		CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA	
la Caixa		Eusko Tren			

Antolatzailea: **ikasberri**
KIROI ELKARTEA

Laguntzaileak:

ORDUA	MAILA	DISTANTZIA
09:30	ALBIBIN neska / mutilak	1.500m.....2A
09:45	INFANTIL neska	1.500m.....2A
	INFANTIL mutilak	2.250m.....3A
10:00	KADETE mutilak	5.550m.....1A+2C
10:25	KADETE neska	2.400m.....1C
	JUBENIL neska	4.800m.....2C
10:50	JUBENIL mutilak	5.830m.....1B+2C
11:20	JUNIOR neska	5.550m.....1A+2C
11:50	JUNIOR mutilak	7.200m.....3C
12:20	SENIOR-promesa neska	7.200m.....3C
12:50	SENIOR-promesa mutilak	11.660m.....2B+4C



Juan Mari Otolu



Alberto Beloki



Roman Azkue



Jesux Artola



Juan Carlos del Pozo



Iban Etxezabal



VIAJES UROLA


B I D A I A K

AGENCIA ASOCIADA A VIAJES IBERIA

gainean dira oporrak

eta **ASTESANTUETAKO** bidaia erabakitzeko duzu?
egin erreserba orain, **ESKAITZA GEHIAGO** dituz

etorri Arana Kalea 1eko bulegora edo deitu 943 15 08 04 telefonora



udaberria-uda 2009



Santi Lazkano Kirolak

Jose Artetxe, 1

Tel/Fax: 943 81 16 50